

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

71. zenbakia

95eko maiatzak 26



Bareak eta pikuak jaietan

EZ GAUDE DENOK !!

Azurmendi: 17 urte kartzelan (Cordoba)

Aldanondo: 9 urte kartzelan (Ceuta)

Txemi: 2 urte kartzelan (Albacete)

Josu: 9 urte ihesian, urtebete kartzelan (Frantzia)

Joxe, Joanmari, Josetxo, Mikel, ...errepresioaren iheslari.



JAIK BAI, AMNISTIA ERE BAI !!

BEASAINGO LOINATZ JAIK

Alkatearen Agurra



**Beasaingo
udala**



Denok egoten gara ilusioz beteta egun hauek iristeko, gazteak, gozatzeko plan ugari eginak direlako eta gainerakook berriz Jestan partaide ere izango garelako. Beste behin ere, gure usuarioak betetzeko aukera izango dugu eta eguneroko ohizkotasunaren bidean etenaldi bat egingo dugu. Guztioi ere zerbi diezagutela jai hauek adiskidetasunezko harreman berri eta aberatsak sortzeko.

Egun horietan bizi izaten den bapatekotasun horrek zerbi diezagula gure betiko diferentziak alboratzeko eta hainbeste desiratzen dugun Bake horretarantz joateko.

Nire esker ona azaldu nahi diet egitarau hau prestatzen eskuhartu duten guztiei eta itxaropena dut denon gustokoa izango dela.

Aldi berean, bihoa nire oroitzapena arrazoi batengatik edo bestearengatik gure artean izango ez diren beasaindar guztientzat.

Eskerrikasko guztiei, Loinatz Jai zoriontsuak izan ditzazuela guztioi.

Jose Luis Arriola Trueba



LOGOS



TXINDOKI


Sukalde eta bainuko altzariak

J. M. Iturrioz, z/g (Matadero parean)

☎ 88 03 98


BEASAIN

ANTZIZAR
KIRLOZERA




**KIROLA BAI, ESKERRIK ASKO
BEASAIN**

**IM.D.
KUE.**



BEASAINGO UDALA (OBUZKOA)
AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

IMD-KUE



**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:**
"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.
Dorre-etxea, 1.
(Correos-gainean).
Tfnoa: 889612.
Faxa: 882719.
124 posta kutxa,
Ordizia.
Zuzendaria:
Loinaz Agirre.
Erredakzioa:
Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:
Argider Mujika.
Erredakzio Batzordea:
Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.
**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Ana Irastorza, Rufino Iraola,
Jon Aizpurua, Josune Amonda-
rain, Izaskun Salazar, Aitziber
Murua, Xabier Mendiguren, Pi-
lare Mujika, Eurne Albizu eta
Aitor Arza.

Azaleko argazkia: Alzuri.
**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Harold Sequeira, Bombaytik Ordiziara

Ordiziako Barrenan 94-95 kurtsoan zehar jarraitutako Yoga ikastaroaren bukaera gisa, Harold Sequeira Bombayko Yoga Institutuko irakaslea izan da bertako taldearekin. Maiatzaren 22tik 25era izan da familiarentzako yogari buruzko hitzaldi eta kurtso teo-riko-praktikoak emanez.

Bere hitzetan, programa hau sendi bateko senide guztiek jarraitu dezakete, yogaren jakinduria erabil liteke famili-beharrei laguntzeko eta denborarekin denek ikasi dezakete zerbait, nola jan era osasuntsuan, nola erlajatu edo nola ikuspegi positibo bat hartu, yogako tekniken bidez. "Gaur egun stress haundia dago gure baitan, familiako kide batzuk blokeoak eragiten dituzte, batak bestea menperatu nahia azal liteke bere ideiak inposatuz, e.a. Interesgarriena zera da, kide guztiek elkarrekin eboluzio bat izatea, eta etorkizunerako gizarte-

belaunaldia prestatzea", dio.

Norberak bere etxean, se-
gundu batzuk izanez gero, er-
lajazioa egiten hasi daiteke, ez
da ezer berezirik behar: baka-
rrik eseri, bizkarra zuzen, be-
giak itxi eta arnasketa luze-
sakona egin eta erlajatu ditza-
ke bere gorputzaren atalak.
Ideia ez da gauza haundi edo
zailak egitea, unero gure egoe-
ra nola dagoen konturatu eta
erlajatzeari baizik. Janariei bu-
ruz, erraz liseritzeko modukoa
eta elikagarria izan dadila
gomendatzen du. Gantza gu-
txi, ez hainbeste janari frejitu,
ez hainbeste kontserbagailu
dutenak, entsalada eta fruituak
egunero... Ohitura osasun-
tsuak aldarrikatzen ditu yo-
giak (ordu beretsutan jeiki,
eguna planeatu, erlazio onak
mantendu, e.a.); otorduak
zaindu (4 orduero ahal bada,
osasuntsua eta ez kopuru
haundian); yogako ariketa
errazak, kirolak ere badira
poliki egiten direnak.

Besteek esana

"Lurra" espedizioa

Logistika eta koordina-
zioa dira zailenak. Asmoa
nuen urtebetean bukatzeko.
Otsailean hemen, maia-
tzean han... Dena lotu behar
duzu: baimenak, bidaiak...
42 hegaldi guztira. Oso as-
tuna egiten da. Eta gauza bat
argi izan dut. Bidaia hauetan
ez badut mendiaz edo jen-
deaz gozatzen, hobe etxean
gelditzea. Eta saiatu nintzen
tarteetan batetik bestera den-
bora piska bat uzten. Hala
ere, bidaiatik etorri eta 3-4
egunera berriz abiatu behar
izatea gertatu da inoiz. (...) Mendiak denak dira politak.
Baina gehien aldatzen dena
herrien bizimodua da. Ho-
rregatik aipatzen dut gehia-
go bertako egoera mendikoa
baino. Saiatzen naiz beste
bitxikeria horiek kontatzen.
(...) ETB eta bestelako la-
guntzailean izan arren, diru
dezente jarri dut sakeletik.
Kanpoko laguntzekin %80a
edo beteko nuen. Guztira 6
milioi-6 t'erdi izango zen
dena. Azkenean, dirua au-
rreratu behar izan nuen, eta
ondoren jaso beharreko di-
rua ere bazen, jaso ez duda-
na. Azkenean neuk jarri
behar hori. Orain ikusen-
tzunezko emanaldi hauekin
ea zer lortzen dudan!

J.R. Agirre "Marron"
ataundarrak "Habe"n,
246. zenb.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali



- Iragazkaiztekoak
- Montairu eta ormigoientzako gehigarriak
- Ormigoiazen tratamenduak
- Dilatazio juntak
- Erretxinak

Senpere Merkatal Zentrua
1. solairua (3. zkia.) BEASAIN
☎ 889350 Faxe: 880688

MIRENTXU LIBURUDENDA-k

festa zoriontsuak opa dizkizue

Nagusia, 1

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN

☎ 88 14 57

☎ 88 04 55



ELECTRO ORIA,

SALMENTA - ZERBITZU

TEKNIKOAK

Tfnoa.
eta faxe:

16 05 33

Nafarroa Etorb.,
7 BEASAIN



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45
Tfnoa. 88 54 66

20200 BEASAIN



*Eskatu
aurrekontuak
konpromezurik
gabe*



CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR
DE FERROCARRILES, S.A.

**BILBOKO
METRORAKO
LEHEN
UNITATEA**

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:721614

Donostiako Erresidentzia: ..453800

Gurutze Gorria:272222

DYA:464622

SOS Deiak:088

Eguraldi informazioa:094

Errepideen egoera:288888

Ertzaintza (Beasain):887350

Suhiltzaileak (Ordizia):881362

Renfe (Beasain):880853

Sarasola Garraioak:880710

Pesa Garraioak:880668

Estellesa (Donostia):470115

Itxaropenaren tfnoa:458005

HIES-SIDAr buruzko Inf.: 282666

Alkoholiko Anonimoak:276618

Goierrri Lanbide Eskola:880062

GOIERRITARRA889612

Errezeta



Mari Karmen Barandiaranek emana

**Barandiaran taberna
Beasain**

BASERRIKO OILASKOA LABEAN

Osagaiak: baserriko oilaskoa, tipula, gatz eta koñaka.

Baserriko oilaskoa labean prestatzea ximplea da, baita jaki hau prestatzeko modurik goxoena ere.

Oilaskoa labeko banderjan jartzen da, gatzatuta, ti-

pularekin eta gainetik koñak kopatxo batekin bustita. Labe nahiko "fuer-tean" ordubetez eduki behar da. Oilaskoari berari ateratzen zaio saltsa eta koñakarekin nahastuta gusto ona ematen dio.

Oilaskoa noiz eta handi-
diagoa den hobe geratzen da.

Bota bertsoa



Aitor Sarriegi

**Gaia: Muruko Mari
Doinua: "Guardia Zi-
bilak hau dio"**

Sarturik udaberria
guztia zoragarri da
ta Goierriko "Kapitalean"
festak laster dira
beraz Mariri begira
ekar dezala sikira
ilusio ta umore ona
Murumenditik herrira

Otso, antzar eta bare
azeriak hurbil daude
zopajaleak, harrikariak...
azak lotsagabe...
ia denok parez-pare
zure beharrean gaude.
Bareak bare ez garelako
"Mariren lanbrorik" gabe.

ETXEBIZITZA ETA LUR-SAILAK SALGAI IDIAZABALEN

1.- 650 m²ko **partzela**, etxebizitza bat edo bi eraikitze-ko aukerarekin, Goatse inguruan.

2.- **Txalet** bifamiliarrak, guztira 250 m²ko partzelarekin. 180 m² 3 solairuetan eraikiak.

3.- **Apartamentuak**, 55 eta 60 m²koak, Zelaako auzoan.

Guardi Poligonoan **partzela industrialak** salgai: 18.000 pzta. m²ko.

Ezolatza Poligonoan, N-1 aren ondoan, **partzela industrialak** salgai: 22.000 pzta. m²ko.

Informazioa Idiazabalgo Udaletxean. Tfnoa.: 18 71 00

Debaldeko iragarkiak

Salerosketak

□Akordeoi bat saltzen da "Pigini" markakoa, 120 bajukoa eta "Master de Lujo" markakoa. Oso egoera onean. 80 01 93.

□Ford Fiesta, diesela, (SS-Z) saltzen da. 88 86 28.

Lana

□Historialari bat eskaintzen da genealogia egiteko. 883072 (Arkaitz, iluntzeko 8etatik aurrera).

□Administrari euskaldun bat edozein lanetarako prest. 801896.

Etxebizitzak

□Pisu bat alokatu nahi dugu Beasainen. Idatz Beasaingo 50 posta kutxara.

Egutegiak

BERTSOAK

✓ Beasain:

Maiatzak 30, I. Murua, S. Lizaso, A. Egaña eta Mikel Aranburu, San Martin Plazan, 13.00etan.

MUSIKA

✓ Beasain:

Ekainak 2, Su ta Gar eta Exkixu, Eskisabel Plazan, 22.30etan.

✓ Ordizia:

Ekainak 1, Ordiziako Musika Eskolako Kamara Orkestra, Barrenan, 19.30etan.

Ekainak 2, kafe-kontzertua, Angel Unzu gitarrajolearen eskutik, Barrenan, 22.30etan.

DANTZAK

✓ Ordizia:

Ekainak 4, Dantzari Txiki Eguna.

BESTELAKOAK

✓ Ordizia:

Ekainak 3, aintzinaki eta bildumagaien hileroko azoka, Beti Alai Pilotalekuan.

ZINEA

✓ Ordizia:

Ostirala 26, "Absolom", 22.15.

Larunbata 27, "Estallido", 19.30 - 22.15.

Igandea 28, "Absolom", 16.45. "Estallido", 19.30 - 22.15.

Astelehena 29, "Estallido", 19.30.

Ostirala 2, "2 tontos muy tontos", 22.15.

Larunbata 3, "El hombre que mira", 19.30 - 22.15.

Igandea 4, "2 tontos muy tontos", 16.45 - 19.30 - 22.15.

Astelehena 5, "2 tontos muy tontos", 19.30.

✓ Beasain:

Igandea 28, 'Street Fighter', 19.30 - 22.15.

Asteartea 30, 'Street Fighter', 19.30- 22.15.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Ekainaren 9ra bitartean, Irene Laffitteren erakusketa Aterpe Tabernan.



ESKORIATZAko MAGISTERIO ESKOLAK

aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzako titulu berria.
- Hainbat arlo ezagutzea: haur hezkuntza, ingelesa, hezkuntza musikala, teknologia berriak, euskara...
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturalean...

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA (Gipuzkoa)
☎ 71 41 57

1995-96 ikasturterako
aurreiskripzio epea
zabalik dago.



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN



Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

Diseinu Grafikoa

Logotipoak, Katalogoak,
Liburuskak, Packaging,
Buzoiak, Txartelak, ...e.a.

Serigrafia

Poloak, Kamisetak, Txanoak,
Jaietako Zapiak, Boligrafoak,
Pins, Piskailuak, ... e.a.

Errotulazioak

Ibilgailuak, Denda eta
Enpresak, Seinaleztapena,
Argizkoak eta Neonezkoak.

ORDIZIA ☎ 16 12 87 - PRUEBAS EN 24 HORAS - LEGAZPI ☎ 73 43 61

Maiatzaren 27tik ekainaren 4ra, Jesus Jauregiren pintura erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

✓ Ordizia:

Ekainaren 2tik 16ra, Barrenako pintura tailerreko ikasleen pintura erakusketa.

MENDI IRTEERAK


Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 28, Mañaria-Mugarra.

Ekainak 3, Lizara-Bisaurin.

Idiazabalgo mendizaleak:

Ekainak 4, Amezketabalerdi.



Jesus Jauregi pintore eta eskultore Seguratuak Beasaingo Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan urtebarruan egin dituen bere pintura lanak edukiko ditu erakusgai. Erakusketa maiatzaren 27an eguerdiko 13.00etan inauguratuko da eta ekainaren 4ra arte egongo da zabaldu, egunero 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara ere bai. Bertan gai eta teknika ezberdinez egindako 20ren bat lan apreziatu ahal izango dira. Horien artean aipagarriak dira Segurako paisaiari buruzko 8 lan, hauetako bat argazkian duzu. Erakusketa kuadro txikiez osatua dago aretoaren espaziora egokitzeko.

GOARDIAKO BOTIKAK

Maiatzak 26: Atorrasagasti; *27-28:* Cuesta; *29:* Azpilikueta; *30:* Jauregi;

31: Lournaga; *Ekainak 1:* Cuesta; *2-3-4:* Arriola; *5:* Urbizu; *6:* Atorrasagasti; *7:* Azpilikueta; *8:* Jauregi.

Nobedade ugari

Bertako produktuetan nobedade ugari izan zen asteazkenean: baba txikiak (150), borraja berria (30-70), azenarioak (txiki xamarra, 50ean sorta), eta kalabazinak (50-75). Kanpokoetan berriz, nobedade, monikiak (400-450), meloia (250) eta sandia (125) izan ziren.

Ziza eta perretxikuak ere ugari izan ziren. Zizak, 200 kilotik gora, 1.500 eta 3.000 pzta. bitartean saldu ziren; onddoak, 30 kilo, 2.500 eta 3.200ean; eta gibelurdinak, 5 kilo, 2.000. Onddo eta gibelurdinak Galiziakoak ziren.

178 arkume buru (500-525), 4 antxume (500) eta untxiak (220) ere azaldu ziren.

Arrainetan berriz, bertako antxoak 580an saldu ziren; txitxarroak 520an txikiak eta 820an haundiak; itsasoilarra 1.120an; eta bonitoa 1.600an.

Ana Irastorza



**ARANDIA
Garajea**

AUTOEN KONPONKETA

LADA

N-1, z/g

Tfona: 88 09 47

Iurre auzoa

OLABERRIA

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8

☎ 88 13 37

ORDIZIA



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA

Tfona eta Faxe: 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
OBRAK
ERREFORMAK**



Tfona: 885500

ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea

Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA

☎ 16 07 07 OLABERRIA

III. IGARTZA ABENTURA ETA MISTERIOZKO NOBELA SARIA antolatuta Beasaingo Udalak, CAF eta Elkarrek. Edonork har dezake parte. Jatorriz euskaraz idatziak, inoiz ez argitaratuak eta beste inolako sariketatik saritu gabek izango dira. Idazlanen ardatza, abentura edo misteriozko kontakizuna izan beharko da. Partaide bakoitzak nahi adina idazlan aurkeztu ditzake. Lanek gutxienez 50 folio izango dituzte. Lan bakoitzetik 3 kopia aurkeztuko dira eta horiek

batera gutunazal itxia. Idazlanak irailaren 15eko 13etarako aurkeztu beharko dira Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan (Loizakozko San Martin plaza, z/g). Saria bakarra izango da, 500.000 pezetakoa. Horretaz gain, Elkar argitaletxeak saritutako lana argitaratuko du.

CAF-ELHUYAR ZIENTZI DIBULGAZIOZAKO SARIA antolatuta da aurten ere. Bi maila bereiziko dira:

* A maila: idazle berriek idatziriko zientzia eta tek-

nologiaren dibulgazio artikulak. Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkarian gehienez bi artikulak argitaratu dituztenak hartuko dira idazle berritzat. Euskaraz idatziriko zientzia eta teknologiaren dibulgaziorako edozein lana aurkeztu daiteke. Lanek luze: 3-6 bitartekoa. Lanak irudi eta grafikoz hornituko dira. 3 sari izango dira: 100.000, 50.000 eta 25.000 pezetakoa.

* B maila: EAEko, Nafarroako edo Ipar Euskal Herriko 2. mailako Irakaskuntzako edozein gelak har dezake parte. Gaiak eskolare-

kin edo eskola dagoen herri edo eskualdearekin lotuta egon beharko du. Luzera, 6-10 orrialde bitartekoa izango da, irudi eta grafikoz hornituz. Sariak: 1.- 150.000 pzta. dirutan eta 50.000 pzta. material didaktikoan; 2.- 75.000 pzta. dirutan eta 50.000 material didaktikoan.

Lanak, azaroaren 15a baino lehen bidali beharko dira (3 ale) Elhuyar Kultur Elkartera (Asteasuain, 14 20170 Usurbil). Informazio gehiago Elhuyarren izango duzu.



Santa Maria, 1
☎ 88 99 77
BEASAIN

Osasuna zaintzea gaixotasuna zaintzea baino hobe delako, zatoz guregana.

Laskurain, 16
☎ 65 54 61
TOLOSA



OTEA

- Gurutze puntua
- Puntu erdia
- Mertzeria

Andra Mari, 1
BEASAIN



J. MUJIKA

Harategia

Nafarroa Etorbidea, 31 ☎ 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 88 08 78
Etxea ☎ 16 06 02

ORDIZIA

A HOLKULARITZA

GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

☎ 16 00 65

Faxa: 16 03 59

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1
☎ 16 16 72

BEASAIN



San Inazio, 19

☎ 88 00 37

BEASAIN



ARRIARAN
karrozeriak

Salbatore Auzoa - Izarraitz, 4
BEASAIN ☎ 88 70 91

Zure esku jartzen ditu:

- ⇒ Txapa eta pintura-lanetako azken aurrerapenak.
- ⇒ Ibilgailu industrialak pintatzeko labe-kabina.
- ⇒ Bankadetan egindako konponketen garantia.
- ⇒ Garabi-zerbitzu iraunkorra, Tfnoa.: 88 32 53
- ⇒ Aurrekontua egiten dugu inongo konpromezurik gabe.

ZATOZ ETA IKUS EZAZU

“Limosnatxo bat eskatu zidan Jainkuaren izenian”

Aurreko batean, etxean nengoela, bi eskale azaldu zitzaizkidan goiz berean ate-joka. Ezer saltzeko aitazakirik gabe. Bati gainera, ez nion antzeman zertan ari zen: mutil gazte bat zen, normal jantzia, eta “eskia” esan zidan, Beterriko euskara garbiz; nik, inozo honek, elurgaineko kirolaz ari ote zen pentsatu nuen instant labur batez, lotsaz luzatutako esku hutsa ikusi nuen arte.

Karteran nituen diru-pixarrak eman nizkion, txanpon txiki haiekin nire kontzientzia lasaitzeko. Egia esan, ez dakit zer den onena: horrelakoei ezer ez ematea, Era-kundeetako ongizate-sail, gizarte-laguntzaile eta abarrekoen zerregina delako, ala karitatearen bertute zahararen bitartez norberak ahal duentxoa egitea. Nolanahi ere, gure gizartea nola dabilen seinale argia da eskaleena, tamalez.

Hala ere, zurikeria hutsa erakusten dugu kexatzen garenean: mina ematen diguna ez baita eskaleak egotea, baizik eta horiek gure aurrean agertzea, ate-joka, kale kantoiari, plaza erdian. Nahiago genuke halakoak uxatuko balituzte, beren problema konpondu den edo ez hainbeste axola gabe.

Xabier Mendiguren Elizegi

Festetan gehiegi edaten al da?



Izaskun eta Eli
17-14 urte, ikasleak
ormaiztegiarrak

Bai, gehiegi edaten dela iruditzen zaigu, pilo bat. Ohitura bezala hartu da poteoa. Hasi eta gainera kontrolik gabe edaten da.



Patxi Azedo
24 urte, langilea
ormaiztegiarra

Batzuk bai, baina normalean da noizean behin gehiegikeriaren bat egitea. Ez da ona baina, zerbaiten beharra izaten du jendeak. Festetan, gainera bereziki gehiago izaten da.



Ander Murua
23 urte, harakina
ormaiztegiarra

Orain arte “desmadre” gehiago izaten zen, diru gehiago zegoelako. Azkenaldian, tabernetan lasaiago ibiltzen da. Orain, hizketan gehiago aritzen da eta trago luzeagoak egiten dira.

A ze flaxa!



Laguntasuna

Urte batzuk izango dira dagoen atean dagoena “letreru” hau. “Hori izan zen Ameriketara joandako batek, Mendizabalek, Ordiziaren alde ekin-tza batzuk egiteko utzitako diruen interesekin mantentzen zen Laguntasuna elkarte. Errondailaren aurretikoa”, esan zigun “Balentxi” txistulariak 92ko 27. zenbakian. Ba, GOIERRITARRAren egoitzaren gainean dago, Dorre-etxean eta, beti esan eta esan, baino oraindano ez genion fotorik atera. Ze “jeibia”, ezta?



ANZIZAR, S. A.

Volkswagen
taldea

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

Linterneritza
Gasa
Berogailuak

BAKARRIK

☎ 88 07 65 Igartza Oleta 10
908 671542 BEASAIN



MUJIK



BEASAIN ☎ 88 74 00

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53 **ARAMA**

Ba al dakizu...?

UDAL HAUTESKUNDEAK direla igandean eta kanpainan aritu dira botu bila bete-betea goierritar politikoak.

Beasainen, IU baztertuen bozeramaile bezala aurkezten dela zioen "D.V."k. EAKo alkategai den Idoia Arratibelek talante berri bat nahi du Udalean. HB-k salatu duenez, EAJ-k kanpaina "lotsagabea" burutu du; Arriola alkateak (EAJ) ezeztatu egin ditu HBk esanak, hots, eraikuntzetako enpresetatik komisiok kobratzen diren susmoak. PPko hautagaien artean Julio Herreros beasaindarra, Jokin Rodriguez mutiloarra daude, gainontzekoak kanpotarrak direlarik.

Ordizian, EE, HB eta Talde Mistoa-ren kritikei erantzun die Erauskin alkateak (EAJ): Udala 290 milioietako zorpean uztea ez da bere errua, aurreko legegaldiko Udalaren heredentzia baizik. EAKo Arizmendiren ustez, bera buru duen zerrendaren bazarik onena bere giza kapitala da. IUKo Pedro Lozano, hau-

tagaia eta Goierriko koordinatzailearen iritziz, Udala demokratizatzea beharrezkoa da, hau da, herritarrek parte harizatea udal-batzetan, e.a. PPko hautagaia Pedro Gandasegi donostiarra da, Ordizia ezagutzen hasi da eta "Madrileko parakaidista bat" denik ukatu du.

Lazkaon Roman Sudupe, Diputatu Nagusitzarako EAJ-ren hautagaia izan zen bere programaren ardatzak esplikatzeko. **Segurako** EAJ-k egitarauaren oinarria bizitza-kalitatea eta herriko garapena dela ziurtatu du. Ataungo HBk "autoritarismoaren aurka", elkarlana bultzatuko duela agindu du.

IZTUETA ZALDIBITARRA hil zeneko 150. urteurrena dela eta, Zaldibiako herriak ekintza ugari antolatu ditu aurtengorako haren ohorez. Aurreko igandean ospatu zen ekitaldi nagusia, Ugarteren eskultura paratu zen, dantzari ugari bertan zirela. Bestalde, Jose Garmendia Arruebarrenaren



"Dantzarien Maisu & Mixelanea" liburua argitaratu du "Iztueta Fundazio" zaldibitarrek eta laister dantzari eta idazle ospetsuaren hiztegia kaleratuko dute. Iztuetaren biografoarekin eukitako elkarriketa emango du hurrengo alean GOIERRITARRAK. Aurretik, aipatu XIX. mendeko gizon hau aztergai izan dela egunotan bere jaioterrian. Emeterio Sorazu, Pello Esnal, Inazio Mujika Irao-



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



Tfnoa./Faxa: 88 63 63
BEASAIN Joan Iturralde,7

trodat

Diseinu grafikoa
Enkuadernaketak
Serigrafian inprimaketak
Kautxozko ziguiluak
Bobinetan etiketa itsaskorak
Inprimaki komertzialak orokorrean



SATELITE BIDEZKO ANTE-
NAK
TELEFONO MUGIKO-
RRAK



MAIZPIDE
euskaltegia

☎ 88 92 31 / 32

LAZKAO

XXI. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

- Uztaleko ikastaroa: 3-21
- Abuztuko ikastaroa: 1-25
- Iraileko ikastaroa: 4-29

Matrikula: maiatzaren 9tik aurrera
HABE-ren dirulaguntzaz

la, Ramon Sanchez eta Angel Murnak hartu zuten parte eta, Iztuetaren altxorra miazten dugun aldiero bitxi berriren bat aurki daitekeenez, ekarpen politik jarri zituzten agerian. Aurpegi asko zituena, bertsolari peto-peto, euskaltzale bikain, polemista... Goierriar jantzi eta haundi haren bizitza eta lan guztiz interesgarriak ezagutzeko aukera baduzu orain irakurle. Aprobetxa ezazu.

ZERAIN EREDUGARRI. Zerain Proiektua eta Zeraingo Parke Kulturala ez dira kasualitate. 79 urte inguruan, alderdi politikoeekin harremanik izango ez zuen hautagai-zerrenda bat osatzea erabaki zuten zeraindarrek, 3 legegintzalditan era berezi batean burutu dutela: hauteskunde aurretik, Udalak dei egiten die biztanleei batzar berezi batean parte hartzeko eskatuz. Herriar bakoitzak 5 zeraingar proposatzen ditu eta boturik gehien jasotzen dutenek osatzen dute hautagai zerrenda. Udala benetako independentek osatzen dute, beraz. Alderdikeriak utzi eta herriaren alde lan egiteko eredu badugu Goierriin.

EPAIKETA izango dute Madrilgo Auzitegi Nazionean maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean, Jose Migel Arteaga 'Txemi', Asier Irastorza 'Tortzi', Josu Aierbe 'Txupi', Adei Barandiaran eta Andoni Urrestarazu gazteek. Sabotaiak egitea leporatzen diete gazte goierriar hauei. Adei Barandiaran apirilaren 10ean askatu zuten. Besteak berriaz, kartzelan daude 93ko abuztuaz geroztik.

'LAN DUINA ZOR ZAI-ZU' lemapean manifestazioa egin zuten Ordizian hilaren 13an, Gipuzkoako gazte kristauak. Independentzia ekonomiko, autonomia pertsonal eza eta euren baliabideak adiminztratzeko dituzten zailtasunak azpimarratu zituzten gazte kristauok. Behin-behineko kontratu mota gehien Ordizian dagoela eta, aukeratu zuten Ordizia manifestazioa egiteko tokitzat. Setien Gotzainaren babesa izan zuten.

AITOR SARRIEGI 2. FASERA pasatu da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Lan txukuna egin zuen beasaindarrek Mutrikuko saioan, eta 397 puntu lortu zituen, lehen kanporaketako 3. puntuaziorik altuena. Mikel Aranburu beasaindarra ere ederki aritu zen, eta 2. fasera pasatuko ote den, zailantzan dago oraindik. Besteak ere noski, ahal zutena egin eta hurrengorarte esan beharrean daude.

AITOR GARMENDIA TOURREAN izango dugu aurten. Hori dela eta, entrenamendu erritmoa piska bat jaitsi egin behar izan du itsasondorrek, Tour-eant puntu-puntu egon eta Induraini laguntzeko.

BEASAIN EK PROMOZIOA JOKATUKO DU. Ezustean, azken partidua irabazi eta Real Unionek galtzean, 2.A mailarako promozioa jokatu du. Espainian puntarik punta ibiliko dira, Ferrol, Valentzia eta Almerian jokatuaz.

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
Tfnoa: 88 40 57 Tfnoa: 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

Nagusia, 3
BEASAIN ☎ 88 92 10



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49
OLABERRIA



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
-Etxe sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 pzt. Karta 2.000 pzt. batz best.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik
Goierriarako bidean
Tfnoa: 88 26 73

XIX. MENDEAN DAGO ESPEZIALDUA ZUMALAKARREGI MUSEOA

Historia koloretsua ikutu daiteke Ormaiztegin

Zumalakarregi Museoak, 89an zabaldu zenetik, gure herriko historiaren garai bat, XIX. mendea, osatzen lagunduko digun guztia berreskuratzea eta aldi horrek daukan balioa ematea izan du helburu. Karlismoaren gaineko artxibo osatuena den hau ikusgarria da eta alderdi asko ditu. Bere ezagutzak pena merezi du.

“Zumalaka”ren berri

Ormaiztegiko Iriarte-Erdikoan kokatutako Museoak Gipuzkoako Diputazioarena da, K-6 enpresak gestionatzen badu ere, azken lehiaketa publikoa irabazita. Bertan 5 langile dira: Mikel Alberdi (dokumentazio-ikerketak), Karmele Barandiaran (zuzendaria), Xabier Kerejeta (difusio arduraduna), Lurdes Azpiazu (harrera eta instalakuntzen mantenimendua, Ezkio-Itsasokoa) eta Lierni Yurrita (idazkaria, Ormaiztegikoa). 20 bat milioieko aurrekontua du, gutxi badirudi ere. “Bada, museo pribilegiatua da gurea zentzu horretan. Museo txiki bat izateko langile eta aktibitate asko ditugu”, dio Kerejetak.

E.H. guztitik etortzen da ikasle-jendea Ormaiztegira, batez ere Gipuzkoatik; Bizkaitik geroztik eta gehiago, Araba eta Nafarroatik gutxiago, aurtan



Mikel Alberdi, Karmele Barandiaran, Xabier Kerejeta eta Lurdes Azpiazu.

gehiago etorri badira ere. Ikusle kopurua ugaritu egin da: 89an 2.600 ikusle; iaz 10.000 bisitari pasak izan zituen; Eskola, euskaltegi eta beste zentruetara bidalitako 3 maleta didaktiko arrakastatsuak (dohaineak) 3.000 pasatxok

Xabier Kerejeta: “Bakoitzak nahi duen bezala erabili du Zumalakarregiren figura”

erabili dituzte. 14.000 lagun kasik, denera. Bestalde, bekak edo dirulaguntzak ere ematen dizkiete ikerketak burutu nahi dituztenei.

Bertakoek ez dute Zumalakarregiren museoak bakarrik izan nahi, baizik eta Generala bere kontestuan kokatzea: “Zumalakarregi mitifikatu egin da. Horixe kontatu nahi dugu, ez guk mitoa elikatzeke, baizik horren zergatia esplikatzeke; garaile eta gazte hil zelako. Bakoitzak nahi duen bezala erabili izan du ormaiztegiarra: foruzaleek foruzale zelako, tradiziozaleek tradizio hutsagatik, espainolista amorratuek espainol hutsa zelako. Guzti hori errebisagarria da. Gainera, militarra izan arren (eta guzti horrek dakarrena), arrakasta badu, bere alorrean

onartu egiten da”, Xabierren ustez. “Nola bakoitzak bere aldetik hartzen duen (alde edo aurka) ez da oso inportantea ezagutzea zer izan zen, zer bertsio kontatu nahi den baizik”. Horregatik ez da jabetzen jendea oso ondo bere figuraz, gauzak nahasten dira.

Ikertzaileek benetako informazio iturria izan dezaten, artxibo pribatuetan sartzen saiatu eta dokumentuak mikrofilmaz ari dira aspaldiontan Z.M.-koak (uzten dietenean). Irujoren Fondoarekin ari dira orain. Beren arloan mogitzen diren instituzioekin lankidetzan dabilta (Nafarroako “Geronimo Uztariz”, Gasteizko “San-

**IKASTEK
AKADEMIA**

Maila eta arlo guztiak

☎ 16 01 20

Joan de Iturralde, 5

BEASAIN



**KOLDO
TRIKITIXA
ESKOLA**

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

**ZALBIDE
SAGARDOEGIA**

Egunero zabalik
lgande eguerdietan ere bai

☎ 65 21 76

Abaltzisketa



Zumalakarregi Museoa

cho el Sabio", Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, Bidasoako "Luis de Urantz", "Gernika Zaharra" historia taldea, etab.). Erlazio estuak dituzte E.H.-ko gainontzeko museo eta artxiboekin.

Jolastu eta ikasi

Didaktismoa da sail handi bat Z.M.an, baina ez bakarria: "Zumalakaberri" aldizkariaren aleak (difusio boletina: publiko zabalarentzat, didaktikoa eta museoaren berriematea) foiletoak eta ikerlariei zuzendutako "Azterketa Historikoak" liburu lodikoteen 3 liburuki ere egin izan dituzte. Prestatu ohi dituzten erakusketak oso generikoak dira, edonorentzat.

Prestaturik daude eskolameei begira, kolektibo nagusia delako. Horientzat badira 3 ibilbide desberdin, segun eta zein mailatakoan diren eskolameok. Horretarako daude beheko solairuko lantegia, ibilbide osagarria, bai eta "maleta didaktikoak", azkenok eskolame eta edozein ikasle kolektiboentzat. Hori da batez ere orain arte landu dutena: "Zumalakarregiren figura eta I Karlistada ezagutaraztea,



Karmele Barandiaran, zuzendaria

gauza zehatza da, zaila da esplikatzen zergatik gertatu zen (nola eman zen errazagoa...). Garai hartako gizartea esplikatzea oso inportantea iruditzen zaigu eta, erakusketa iraunkorrean erakusten da, baina gutxiago, gerra garaian zentratzen da, arazo politiko-belikoan".

Kontua da XIX.eko gizartea era zabalagoan ulertaraztea eskolame eta bestelakoei. Hortik joan dira urteroko

goiko pisuko bere tresna guztiak beheara pasaz.

Joandako maiatzaren 18an izan berri da Museo Eguna. Aurtengorako aukeratu duten gaia Ormaiztegiko zubi zaharra izan da. Kronika grafiko bat antolatu eta herriko zenbait gaztetxo gida moduan prestatu dituzte zubiari buruzko informazioa zabal dezaten.

Erakusketa aldatzeaz gain, gauza berri batzuk ere badituzte mahai gainean: "Irratirako jolasaldi batzuk antolatzeko aukera izango dugu; gaia garaiko pertsonai bat izango da. Uda aldean ibilbide tematikoak antolatzea museotik kanpo, Zerainekin batera eskeintza bariatuagoa izan dadin". Iriarte-Erdikoako ateak ikusi nahi duten irakurle guztientzat zabalik daudela esaten digu Karmelek. Zumalakarregi eta bere garaikideak zein ziren eta nola bizi ziren ikusi dezakezu.

3 ibilbideak eta 3 maleta didaktikoak. Aurtun difusiorako foiletoak egin eta tailerra montatu dute bestealde. Taldeak goiz edo arratsalde datoz bertara eta beraientzat daude. Umeenei, Baserritik Museora, Ormaiztegiko Lizarralde baserria erakusten zaie kanpotik, soroak nola banatzen diren... Museoan etxearen estruktura ikusten da barrutik. OHOKo 8 mailakoak Zumalakarregiren figura ikusten dute, I Karlistada, aurretiko egoera, Iraultza Frantsesa, aldaketak, krisi ekonomikoa, gerrak, e.a.

On Tomas da erreferentzia nagusia, liburu-artxiboak horretan zentratu daude. Piskanaka laminak, mapak, aldizkariak, e.a. erosiz joan dira, jabetzak gehituz eta osatuz. Beste artxiboen erreferentziak ere badituzte, ze ikerketa eginda dauden hortik zehar. "Bizitzeko agian konplikatuak izango zen XIX mendea, baina ikertzeko oso interesgarria da". Horregatik egin zuten iaz XIX mendeko argazki lehiaketa eta bilketa: "XIX. mendea: bi munduen arteko zubia"

Baina umeez gain, helduak ere iristen dira taldeka. Bere gisa artxiboak ikustera etortzen diren interesdunak ere badira. Liburutegia erabili nahi dutenek libre dute, Madrileko "Comunion Tradicionalista"-koetatik hasi eta euskaltzale amorratuenetaraino, denetik, Zumalakarregiren aldekoak nahiz kontrakoak, interesa duten guztiekin kolaboratzen dute. XIX. mendearekin zer ikusi duen ororen Museo dugu Ormaiztegikoa.

Oraindik guztiz aztertu gabe dagoen iraganaldi bat gogora ekartzea da bere egin beharra, ulertu behar baita aurreko gizaldian jarri zirela gaur egungo maila guztietako oinarriak. Aintzinako Errejimenaren krisialdiaren ondoren izan ziren aldaketa ideologiko, egitura sozial, ekonomiko eta politiko askoren lekuko interesgarri eta paregabea da Z.M.a.

Jon Arano eta Aitziber Murua

Bizi-irauteko berritu

Museoa ireki zenez geroztik da zuzendaria Karmele Barandiaran donostiarra. Hasera batean museo gauza nahiko "hila" bezala agertu dela dio. "Kontutan izan behar da historiazko museo dela eta halakoak gauza aspergarritzat dituela jendeak. Dena den, haseratik museo jendearengana hurbil dadin saiatu izan gara gu". Jende espezializatuentzako bakarrik ez baino edozeinentzako delakoan, museo bizia, erakargarria egiten saiatu dira.

Museoaren eraldaketa beharrezkoa ikusi eta oraintxe ari dira berrantolaketa prestatzen. "Beheko solairuko geletako material gehiena irakurtzeko panelek osatzen dute; ondorioz, ikuslearentzako nahiko pisua gertatzen da, askotan irakurri ere egiten ez dituelarik". Gela horietan Zumalakarregiri buruzko gunea jarri nahi da,

● Maiatzak 26, ostirala

19.00etan: erraldoi eta kilikiak.

19.30etan: sardina jana Zubimuzu Plazan.

20.30etan: Loinatz eta Loinatz Gaztea abesbatzen kontzertua Parrokian.

22.30etan: Mariren jaitsiera San Martin Plazan.

23.00etan: Goloka antzerki taldeak Herensugearen burua lana antzeztuko du kaleetan zehar.

23.00etan: Kiñu taldearekin dantzaldia Bideluze Plazan.

● Maiatzak 27, larunbata

12.00etan: umeen danborrada CAFeko ate nagusitik abiatuta.

17.00etan: eskuzko pilota partiduak Kiroldegian.

17.00etan: Hiri-jokoa ginkana eta guzti Joan Iturralde Plazan.

22.30etan: Danborrada.

23.00etan: Beasaingo musika taldeen lehen maketaren aurkezpena Eskisabel Plazan.

00.00etan: Danborradako konpainien bilkura eta azken joaldia Koskola eta Oria txarangarekin, San Martin Plazan.

00.30etan: Oria txaranga eta Indarra taldearekin dantzaldia San Martin Plazan.



Arg.: Alzuri

● Maiatzak 28, igandea

10.00etan: XXVI. Loinazko San Martin nazioarteko xake jokaldia CAFeko aretoan.

12.00etan: 'Beasaingo hiria' izeneko argazki lehiaketako erakusketa Udaltxeko Batzar Aretoan.

12.30etan: Jakako Santa Orosia Udal Musika bandaren kontzertua San Martin Plazan.

17.00etan: txotxongilo-antzerkia aurkeztuko du Puerta Magica taldeak Usurbe Antzokian.

18.30etan: Herri kiroleko txapelketan, Olaberria Beasainen aurka, Barrendain Plazan.

19.00etan: Jota jaialdia Voces Navarras taldearekin, San Martin Plazan.

23.00etan: Su artifizialak Caballer pirokteniaren eskutik, Igartzako jauregiaren atzeko zelaian. Ondoren Oria txaranga.

23.00etan: Beasaingo musika taldeen lehen maketaren aurkezpena Eskisabel Plazan.

● Maiatzak 29, astelehena

9.00etan: prozesioa Loinazko San Martinen Baselizara. Ondoren Meza Nagusia, erromeria eta barraskilo jana.

11.00etan: Umeentzako parkea Urbialde Plazan.

Trio

Boutique

☎ 88 99 70
Nagusia, 16

BEASAIN



LOPETEGI AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 882174
☎ 651117

BEASAIN
TOLOSA



XUBER PUB

Festa onak igaro!
Zaldizurreta, 5 BEASAIN

11.30etan: kuadrilen arteko futbol txapelketako azken partidua La Sallen.

13.00etan: kuadrilen irteera.

18.30etan: kuadrilen bilkura eta jaitsiera, Barrendain Plazatik abiatuta.

19.30etan: Akelarre taldearekin dantzaldia, Bideluze Plazan.

20.15etan: karaokea Bideluze Plazan.

23.30etan: Akelarre taldearekin dantzaldia, Bideluze Plazan.

● Maiatzak 30, asteartea

10.00etan: azoka berezia. Barazki lehiaketa San Martin Plazan; azienda, hegazti eta artisauen erakusketa Joan Iturralde Plazan; talo, sagardoa eta gazta dastaketa Zubimuzu Plazan.

11.00etan: Umeen dantzasoka San Martin Plazan.

12.00etan: Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariak San Martin Plazan.

13.00etan: I. Murua, S. Lizaso, A. Egaña eta Mikel Aranburu bertsolariak San Martin Plazan.

19.00etan: helduen dantzasoka San Martin Plazan.

19.30etan: bertsolariak eta Koldo eta Arantxa Iparragirre trikitilariak San Martin Plazan.

● Ekainak 2, ostirala

17.30etan: Txilipurdi pailazoak Joan



Arg.: Alzuri

Iturralde Plazan.

19.00etan: erraldoi eta kilikiak.

20.30etan: Beasaingo Akordeoi Orkestraren kontzertua Parrokian.

22.00etan: Urrezko Barea ematea Betti-Bizi Elkarteak.

22.30etan: Su ta Gar eta Exkixu taldeen kontzertua, Eskisabel Plazan.

23.00etan: Espresso Combo taldearekin dantzaldia San Martin Plazan.

● Ekainak 3, larunbata

11.00etan: elkarteen arteko sukaldaritza-lehiaketa Gernika Pasealekuan.

16.00etan: plater tiraketa Aitz Zorrotzek antolatua, Suministros Loinazen parean.

17.00etan: ume mozorrotuen bilkura eta desfilea, Barrendain Plazatik.

17.30etan: Goitibeheren jaitsiera, Erauskin Auzoan.

18.00etan: umeentzako dantzaldia Joan Iturralde Plazan.

19.00etan: Oria txaranga eta txalaparta herriko kaleetan.

21.00etan: mozorrotuen afariak.

00.30etan: mozorrotuen dantzaldia Caña Brava salsa taldearekin Bideluze Plazan.

● Ekainak 4, igandea

9.00etan: Iturengo zantzarren esnadaia.

11.30etan: gomazko pilotaz jokaturako pala txapelketako finala Batzokian.

12.00etan: marrazkigintza tailerra Beasain gaitzat hartuta, Joan Iturralde Plazan.

17.00etan: ume eta gaztetxoentzat eskalada Joan Iturralde Plazan.

18.30etan: herri kirolak Barrendain Plazan.

19.00etan: eskualdeko erraldoi eta kilikien bilkura eta ibilaldia Urbialde Plazan.

20.00etan: Aurtzaka taldearen eskutik euskal dantzen jaialdia San Martin Plazan.

OIARBIDE OINETAKOAK

Laskurain, 12

☎ 65 37 86

TOLOSA

San Inazio, 14


☎ 16 04 34

BEASAIN

Ñañarri taberna

Kale Nagusia 15 BEASAIN

☎ 88 06 59



Zaldizurreta kalea ☎ 88 45 06
BEASAIN



ARANA, 1
TEL. 889388
BEASAIN

Zaharrenak ere jaietan

Jaiak gazteentzat direla diotenak ez dabilta zuzen. Umeentzat, gazteentzat, helduentzat, agureentzat... denentzat dira, eta bakoitzak bere erara ospatzen ditu. Zaharren Egoitzan izan gara, jaiak nola pasatzen dituzten eta zein ekintza egiten dituzten jakin asmotan. Urtean zehar egindako lana erakusteko ordua da.

Gauzez ez dira irteteten, baina egunez antolaturiko ekitaldietan hantxe izaten dira herriko aiton- amonak: danborradan, kuadrila egunean ospatzen den jeitsieran, San Martingo prozesioan, astearteko azoka berezian... Mozorro egunaz lehenengo aldiz desfilean parte hartu zuteneko aldia dute gogoan: lotsa ematen omen zien, baina behin atera ezkerro lotsa joan eta oso ondo pasatzen omen dute. Aurten desfilerik ez da izango, baina mozorrotu egingo dira. Hala ere, desfilea nahiago omen dute.

Zaharren Egoitza ohi baino hustuago egoten da. Baina hori bai, kuadrila egunean, San Inazio kuadrila egun berezi hori alaitzera joaten zaie bertan dantza piska bat eginez. Hala ere esan digutenez, jaietan ohizkoa den baino jende gutxiago joaten da Egoitzara, beraiek ere festak kalean ospatzen bait dituzte.



Zaharren egoitzako abesbatza.

Inor baino lehenago

Beraiek ekintza ugari antolatzen dituzten Loinatzetan. Jaiak hasi bezain laster Zaharren Egoitza eta Erresidentzia kolorez beteriko ginaldaz betetzen da. Jaiak iritsi dira eta Murumendiko Mari urtero dioen bezala, giro onenean ospatu behar dira. Jubilatuak gainera, inor baino lehenago hasten dira jai giroan. Lehenengo asteburu gogorra pasatu, eta ostegunerako prest izaten dira, beraien eguna izaten baita osteguna. Egoitzako abesbatzak kontzertu bat es-

kainiko du Usurbe Antzokian. Abesbatza 25 partaidez osaturik dago eta urte guztian zehar gogor lan giten dute beraien ezarrietatik doinu politak atera daitezen. Abesbatzak urtean zehar leku ezberdinetan abesteko gonbitea jasotzen du, eta Gabonetan edo ospakizun berezietan herrian bertan beraien saioak eskaintzen dituzte. Ostegunean abesbatzaren kontzertuaren ondoren, Zapotxin taldearekin dantzaldia izango dute Egoitzan bertan. Hantxe arituko dira dantzan gelditu ere egin gabe.

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



**GOKINDEGIA
GARONA**

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19

☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44

BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean

Tfonia eta Faxe: 88 04 78

Nafarroa Etorbidea, 1.


BEASAIN



Nafarroa Etorbidea, 11 - Tel. 88 27 16

BEASAIN

ALUMINIOS



EUSKADI, S. A.

Zubi termikoaren haustura
Aroztegiatarako profilak
Bainu manparak
Aluminiozko xafla normalizatuak
Makinaria

Biltegia: ☎ 16 11 66

Bulegoak: ☎ 88 93 50

Faxe: 16 02 91

10 Poligonoa

34-36 Pab.

BEASAIN

Beasainen

Bigarren astebururako Aitzgorri Mendizale Elkartek ohizkoa duen bezala, toka eta igel lehiaketa antolatu du jubilatuentzat Zaldizurreta Enparantzian. Dena den, benetan aipagarriena dena, mozorrotuen desfilean duten parte hartzea da. Aurten desfilerik egongo ez den arren, beraien mozorroak jantzi eta kalera irtengo dira. Umore ona ez zaie falta aurreko urteetan ikusi ahal izan dugunez.

Eskulanen erakusketa

Urte guztian zehar zenbait jubilatuta Eskulan Tailerrean lan eta lan aritzen dira eta beraien eskulanak herritar guztiek ikus ditzaten erakusketa antolatu dute jaietarako. Erakusketa maiatzaren



26tik ekainaren 4ra egongo da ikusgai Zaharren Egoitzan eta bertan ikusi ahal izango dira, makramea, izara eta mantelerik pinturak, kristaletako pinturak, markoen zaharkitzeak, errusiar zermakak, oleo pinturak, itsasontzi baten maketa eta garbantuz eginiko erro-sario bat.

Erresidentzian bestalde, agure guztiek ez dute kalera irtetzerik izaten, beraien osasun egoera dela eta. Gauzak honela, bertan gelditu beharra dutenentzat batipat, zenbait ekintza antolatzen dira: kontzertuak, jokuak, meriendak... Urtero Ordiziako Erresidentziako abesbatzaren bisita jasotzen dute eta Ordiziako jaiak ospatzen di-

renean, Beasaingoak joaten dira. Kontzertuaren ondoren, merienda eta dantzaldia izaten dute. Danborrada egunean ere zenbait bisita berezi jasotzen dituzte. Goizean La Salle-San Jose ikastetxeko danbor konpainiak Erresidentziara igotzen dira eta arratsalde berriz, Murumendi Elkartekoak. Beraz, danborrada ikustera jeitsi ezin dutenek danborren soinuaz gozatzeko aukera izaten dute.

Beti jai usaiean, beraz. Ondo pasa, urte askoan eta hurrengo urterarte!

Izaskun Salazar

SAIOA taberna

*Giro on eta jatorra
"Festa onak pasa!"*

☎ 88 06 02
K. Nagusia, 33

BEASAIN

GOIERRI BODEGOIA

Eguneroko bazkari eta afariak

Nagusia, 18 ☎ 88 00 00 BEASAIN



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

San Inazio, 6 ☎ 161674 - 161328 BEASAIN
Victor Mendizabal, 2 ☎ 88 47 65 ORDIZIA

*Ives
rothers*
BEASAIN

ARRANO

Taberna

*ogitarteko
eta pintxoak*

☎ 88 74 47

Kale nagusia, 12

BEASAIN

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**




OLANO Harategia



☎ 88 07 78

Andra Mari, 3

BEASAIN



ILEAPAINDEGI MISTOA

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 16 11 05

BEASAIN

EUSKO LABEL

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**



PELLO HARATEGIA

*Jai egunak ondo igarotzeko
okel ona ezin besteko*

Mariaratz, 2

BEASAIN

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



* HORTZEN EDERKUNTZA

* HORTZ EZARKETAK

* MATRAIL-HEZURREKO
ARTIKULAZIOAREN
TRATAMENDUAK

* PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83




Alpe

Sukaldeko haltzari eta elektragailuen erakusketa
Ordenagailuzko diseinua, eskatu aurrekontuak
konpromezurik gabe

Mariaratz, 4

BEASAIN ☎ 88 86 84



Falta direnak gogoan

Maiatzak 26, ostirala, Mariren jeitsierarekin aurtengo herriko jaiak hasiera emango zaie. Herriar ugari, urteroko ohiturari jarraituz, bertan izango da, 2 astetan zehar festa giroan murgilduko gaituen irteera txanpan.

Jose Migel Azurmendik, Cordobako kartzelatik, dagoneko espetxean 17. urtez jarraian, itxaron egin beharko du, berarentzat ezezaguna den ekitaldi hau ezagutzeko. Oinarrizko diren giza-eskubideen artean dagoen eta gaur egun legedi penitentziarioaren arabera aplikatu beharreko, baldintzapeko askatasuna, PSOE-ko Gobernuak, PNV eta beste Paktokideen oneritziarekin, ukatzen diotelako.

Ceutan espetxeratua dagoen **Jokin Aldanondok**, aldiz, egun berezi hauek bere lagunak bisita jasotzea ezinezkoa izango du, euskal preso politikoen kolektiboak behin eta berriz aldarrikatzen duen "Presoak Euskadira" eskakizuna, bere burua "demokratizatzen" duten alderdi politikoen gaitzesten diotelako, eta horren ordez, sakabanaketa izeneko zigor politikorekin "oparitzen" dituztelako.

Txemi Arteagak, Albaceteko espetxetik Euskal Herrira pixka bat hurbiltzeko "aukera" izango du jaietan,



baina sufrimenduzko lekualdatze hau, Madrilgo Audientzia bukatuko da. Koadrila eguneko gorabeherak jendearen ahotan egongo diren aldi beretan, berak, beste zenbait goierritarrekin, 2 egunetan zehar (Maiatzak 31 eta Ekainak 1), gure herriak jasaten duen errepresio bortitzaren ispilu den fartsa hutsezko epaiketa pairatu beharko du.

Josu Lopezek ere, La Santéko kartzelan, Estatu Frantsesak Euskal Herriarekiko duen joera zapaltzailea salatzen eta bertan dauden euskal preso politikoen giza-eskubideen errespetua exijituz burututako gose grebaren ondorioz, nahiko lan izango du osasunarentzat horren kaltegarria den barauaren ondorioak gainditzeko, Beasaingo

kaleak danborren erritmoek eta mozorrotuen dizdirez betetzen dituzten bitartean.

Baita herriko errefuxiatuek, Joxetxo, Mikel, Juan Mari eta Josetxok, gogoratuko dituzte orain dela urte batzuetako parranda giroko gauak, klandestinitatean, herriatik urrun, arrotza zaien inguru batean irautera behartuak, GAL eta guda zikineko arduradunak kalean aske diren bitartean.

Herri mailan berriz, jai hauek "nobedadea", Udaletxeak onartu berri duen propagandari buruzko normatiba edo araudia dugu. Inposaketa honen bidez, oinarrizko eskubidea izan beharko lukeen adierazpen askatasuna, faszismo kiratsa duten neurriak erabiliz eta ertzainen bortizkeri edo errepresioaz baliatuz, inongo lotsarik gabe zapaldua izan da.

Bukatzeko, festa egun hauek, herriko errepresaliatu eta horrenbeste sufrimendu jasaten ari diren beraien senideen inguruan prestatutako ekitaldi eta mobilizazioetan parte hartzea animatu nahi zaituztegu, amnistiren bidez, 1996. urteko jaiak, guztiok elkarturik ospatzeko itxaropenarekin.

Beasaingo Amnistiaren Aldeko komitea



Nagusia, 11

☎ 88 82 37

BEASAIN

GOZODENDA

MARI JOSE MERTZERIA

Kinkila-denda

☎ 887267

S. Inazio, 14 (Galeriak) **BEASAIN**

PATXI ARANBURU

Harategi-Urdaitegia

☎ 880485

J. M. Iturrioz, 1 **BEASAIN**



GRUPO VITALICIO

SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PERSONAS

ASEGURUAK

Esteban Lasa, 3 ☎ 160486 **BEASAIN**

ITZALA

Taberna

Zaldizurreta 3 **BEASAIN**

Tfona: 88 30 24

Jose Mari Salinas

Auto elektrizitatea

Erreminta elektriko erabilgarriak
Konponketak

Enatarriaga etxea, Iurre auzoa

Tfona: 88 21 49 **BEASAIN**

Legorretako jaietako egitaraua

● Maiatzak 26, ostirala:

10.00etan: Diana dultzainariekin.

12.30etan: herriko soinu-jole eta dantzari gazteen saioa.

14.30etan: zikiro jatea Bilkoinen, Nekaezinak txarangak alaituta.

23.00etatik 3.30etara: Drindots taldearekin dantzaldia.

● Maiatzak 27, larunbata:

10.00etan: Diana dultzainariekin.

12.00etan: txakolin dastaketa, Nekaezinak txarangak alaituta.

13.00etan: herriko XIII. Paella txapelketa.

14.30etan: lagunarteko herri bazkaria plazan. Jakiak norberak jarri beharko ditu.

16.30etatik 18.30etara: haur jolasak Kirol zonan.



Gizon Pikuaren su ematea.

"Pulit-zer"

18.45etan: Play Back txapelketa.

23.30etatik 3.30etara: dantzaldia Festatxo taldearekin.

00.00etatik 01.00era: Mozorro gaua.

1.30etan: Mozorro lehiaketaren sari banaketa.

● Maiatzak 28, igandea:

10.00etan: Diana dultzainariekin.

12.00etan: erraldoiak eta buru haundiak, herriko Lazkanoi-turburu lehengusuak bikoteak lagunduta.

17.30etan: Bilkoin eta Jota-Kea Elkarteen arteko I. Pilota Txapelketa.

18.00etan: kalejira Nekaezinak txarangarekin.

19.00etan: haur danborrada, txarangak alaituta.

22.30etan: Gizon Pikuaren ehorketa. Jaiei amaiera on eta "alai" bat emateko kandlekin eta

arropa beltzez jantzita azaltzea eskatzen da.

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadaupe Auzoa
LEGORRETA

☎ 806355

Sagardotegia



a u l i a

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66 LEGORRETA

GUADALUPE JATETXEA

Eguneroko bazkariak

Guadaupe auzoa
☎ 806385

LEGORRETA

II

HIDALGO

BITXITEGI - ERLOJUTEGI

Legazpi kalea, 4
Tfnoa: 880406
ORDIZIA

GOIHERRI, S. A.

PAPELAREN MANIPULAKETA

San Migel, 7
Tfnoa.: 80 61 90
LEGORRETA

Asier Zinkunegi: "Herriko jendearentzako dira gure festak"

Asier Zinkunegi audientzia marka guztiak hausten ari den "Goenkale" telesailaren aktoreetako bat dugu. Euskaldun gehienon etxetan hain ezaguna egin den Haralde herriko Iker gaztearen papera betetzen du. Orain dela 5 urte hasi zen aktore lanetan, "Tolosan, ikastaro batean Maite Agirrerekin. Montaje bat prestatzen ari zirela eta ea nahi nuen beraiekin en-saiatu, galdegin zidan, agian paperen bat lortuko nuela".

G.- Zer suposat du zuretzat Goenkale partehartzeak?

E.- Gauzik garrantzitsuenak Sevillan ikasten jarraitzeko posibilitatea eman didala, ekonomikoki ez neukan aukera hori eta Goenkaleri esker beste 3 urtez han ikasteko posibilitatea.

G.- Zein da telesailaren arrakastaren gakoa?

E.- Pertsonaiak hemengoak direla, hemengo kulturaren pertsonai nahiko tipiko edo topikoak ukitzen dituela. Zer familiatan ez dago Maria Luisa bat? Maria Luisaren gizona normalean Joxe Mari bat izaten da.

G.- Jendearen harrera kontutan harturik, nola eramaten da ezaguna izatearen zama?

E.- Batzuetan ondo eta besteetan gaizki, momentuaren arabera. Momentu batzutan eskertzekoa da kaletik zoazenean



jendeak esatea asko gustatzen zaiela gure lana, baina beste batzutan, lagunekin parrandan zabiltzenean adibidez, bai gu eta bai jendea pasatu egiten da eta gauza arraroak gertatzen dira. Esaterako, goizaldeko hiruretan ez zaude momentu egokienean horretaz hitzegiten hasteko, batzuetan ito ere egiten du piska bat.

G.- Aurrera begira, ze asmo edo proiektu dituzu?

E.- Proiektua ikasten jarraitzea da. Bestalde, Goenkaleri esker konturatu naiz bide onetik noala, Sevillan asko ikasi dudala eta ikasten segitzea da asmoa, ahal dudan formaziorik hoberena lortzeko.

G.- Aktore bezala, ze amets ikusi nahi zenuke beteta?

E.- Aktore baino gehiago pertsona bezala egunen batean atzeraka begiratu eta

esan: "beno, hau izan da nere bizitza eta hau izatea nahi nuelako izan da". Horixe.

G.- Nola ikusten duzu orokorrean euskal antzerkigintzaren osasuna?

E.- Kritikoa erabat. Koman dagoela iruditzen zait eta gainera suerorik gabe. Txarra oso, antzerki mundua oso gaizki dago E.H.-an, subentzioak oso urriak direlako, beka gutxi ematen dira kanpora ikastera joateko eta formazioa nahiko murrizta da. Bestalde, antzerki kulturarik ez dago, jendeak antzerkira joateko ohiturarik ez dauka. Antzokirik ere ez dago. Pentsatzen dut antzoki gehiago eraiki beharko liratekeela eta daudenak hobeto prestatu antzeztu ahal izateko.

G.- Legorretar gazte zarenez, festak iristeko gogoarekin egongo zara, ezta?

E.- Deseatzen!

G.- Zein da zuretzat festetako gauzarik azpimarragarriena?

E.- Herriko jendearentzako festak direla, ez dela beste leku batzuetan bezala kriston kanpotar piloa etortzen inbasio bat sortuz. Hemen herriko jendea ibiltzen gara, sekulako giroa montatzen da.

G.- Hauteskundeak gainean: zer eskatuko zenioke datorren alkateari?

E.- Urtean 4-5 aldiz festak jartzea.

 Josune Amondarain

ARIZPE Lantegia

Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta autogenoan lanak

☎ 80 60 98

Eguzki Etxea

LEGORRETA

LASA EGURRAK, S. L. Zerrategia

☎ 80 60 22 Berostegi auzoa

Faxa: 80 65 56 LEGORRETA



eredu S. Coop.

Poligono Industrial, z/g
LEGORRETA
97 p.k. TOLOSA
☎ 806100 Faxa: 806374
Telex: 36663 ERED E

ORMAIZTEGI

Gaztetxoak futboleko Eskolarteko Olinpiadan garaile

Aurten Ordiziako Udalak Guraso Elkartearen laguntzaz antolatu duen Eskolarteko Futbol Olinpiadan Ormaiztegiko Herri Eskolako 3. mailako gazteak irabazle izan ditugu beren mailan. Herri desberdinetako hainbat talde garaitu ondoren, finala maiatzaren 6an jokatu zuten Lazkaoko San Benito Ikastolaren aurka, irabaziz, esan bezala.

San Andres Herri Eskolako taldea osatzen duten jokalariek gaztetxoak hauek dira: Iñigo Argiñano, Xabier Garmendia, Beñat Larena, Iñigo Hernandez, Aratz Garate, Ibai Gerenabarrena, Beñat Idiakez, Ion Mujika, Gorka Aldalur, Mounir Ziani eta Ion Imanol Martin.

Prestakuntza eta heziketa lana erabat garrantzitsua da garaipenak lortzeko. Hutsaren truke lan hori burutu duen entrenatzailea Iñaki Aldalur izan da eta horretan jarraitzeko kemen handiagoa izango du aurrerantz.



tan ere hutsik egin ez dutenez, Gipuzkoako finalera iritsi dira. Ordiziako txapelketan garaile gertatu zen talde honek maiatzaren 20an jokatu zuen finala Donostian, Azkoitiako aurka. Partidua 5eko berdinketaz bukatu zen eta penaltiak jaurtiki behar izan zituzten. Ez zuten merezi bezalako zortirik izan eta 2. postua lortu zuten.

Ormaiztegiko jokalariai honakoak dira: Oihana Katarain, Maialen Legorburu, Miren Murua, Nerea Magallanes, Alazne Lozano, Alazne Izagirre, Anekari Garmendia, Olatz Elorza, Aintzane Albisu eta Joana Martinez. Horrelako talde bat aurrera ateratzeak heziketa-lan bat eskatuko du eta horretan saiatzen ari dena Ambrosio I. Apaolaza da.

Bai mutikoena eta bai neskeena, bi taldeotan ari zareten gaztetxo, entrenatzaile, hezitzaile eta guraso guztiek jaso ezazue Ormaiztegiko herri osoaren aldetik zorionik beroena.

Futbitoko finalean neskak

Herri Eskolako 8. mailako neskek ere

talde bikaina osatzen dute futbol-salan.

Aurtengo denboraldian, partidu bate-

Aitziber Murua

UNTXUNDEI
Garajea



OSINALDE
Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak eskertuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik ostiralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pza. + BEZA

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin. On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

KEMEN KIROLAK



GOIERRITARRA



88 96 12

Gazteak eta euskara

Ikastetxe guztien laguntzaz, "Hitzaro" Euskara Elkartea ikerketa saio bat burutzen ari da Ordiziako eskolaumeen hizkuntza portaerak aztertu ahal izateko. 7tik 17 urte arteko gazteen hizkuntza gaitasuna, erabilera eta jarrera dira aztergai. Aurrerantzean lan egin ahal izateko gizarte adierazleak eskeiniko dizkio ikerketa honek elkarte horri. dena den, eta euskararen iraupenerako gazteen erantzukizuna ukalezina den arren, aipatu ikerketa azterketa sozio-linguistiko zabalago baten parte da.

Ikerketa honi ekin zionean, lanerako oinarri bat lortzeaz gain, ikastetxe ezberdinen partehartze aktiboa eskatuko lukeen zerbaiten atzetik zebilen, normalizazio lanetan agente ezberdinen eta guztien beharraz jabetuta. Hortik etorri zen herriko hezkuntza zentru guztiei egindako gonbitea. Milagrosa, Urdaneta, Jakintza, Oianguren eta Goierri Eskolak argi eta garbi utzi dute euskararen alde duten benetako konpromezua. Guraso, ikasle eta irakasle guztiei azterketa lana burutzen laguntzeko eskatzen die "Hitzaro" k.

Dantzari Txiki Eguna

Ekainaren 4ean, Jakintza Dantza Taldeak antolatuta, Dantzari Txikien Eguna ospatuko da herrian. Zumaia, Dulantzi, Zaldibia, Gasteiz, Lasarte, Orereta, Urretxu eta Ordiziako 250 dantzarik hartuko dute parte. Eguerdian

taldeak binaka ibiliko dira auzoz auzo, bakoitzak 4-5 dantza eskeiniaraz. Ondoren, J.M. Barandiaran plazan talde guztiek Agintariena, Agurra eta Fandango eta Arin-arina dantztuko dituzte. Arratsaldean Enparantza Nagusian elkartuko dira, talde bakoitzak bi dantza eskeiniaraz. Hurrena, Jakintzako dantzari bategen Desafioa eskeiniko die egun berezi honetan parte hartu duten guztiei. Bukatzeko, talde guztiak Kalejiran ibiliko dira.

Aparteko Azoka

Udalak antolatu eta "Goimen", Idiazabal Jatorri Izena eta Gaztaren Kofradiak lagunduta aparteko peria egin zen aurreko larunbatak 20an. 500 urte dituen izen handiko azoka hau sekula ez zen larunbatez egin eta, garbi ikusi zen, benetako feria, Ordizian, asteazkenetan izan ohi dela. Protagonista nagusiak Idiazabalgo gazta berria, ahate-foiea, lorak, pastelak, ezti eta inguruko barazkiak izan ziren. Kanpotar ugari bertaratu zen, Iparralde, Nafarroa, Kantabria, e.a.-etik. Ea ze atarramendu izaten duen ekimen interesgarri honek.



Lazkao Txiki Lehiaketa

Aurten ere, eta 4. aldia da, Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa antolatu du "Argi Berri" Elkarteak. "Zer toki gutxi behar zuen gurekin zegoen orduan, baina zer hutsune handia utzi zuen alde egin zuenean". Zer arrazoi duen Andoni Egañak hori esatean. Lazkao Txiki joan zitzaigun, baina gaurko bertsolariak eredu bikaina dute harengan. Gaztetxo, Gazte eta Helduen mailetan banatutako honetan, neurria eta doinua librean izango dira, baita gaia ere (Gaztetxoetan udalekuei buruzkoak izan beharko dira bertsoak). Lanak uztailaren 1a baino lehen bidali beharko dira "Argi Berri"ra. Informazio gehiago: 885228 eta 889053.

 Aitor Calvillo

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta ☎ 88 72 76

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.


Tfona: 880543 BEASAIN



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
☎ 16 17 44

ORDIZIA



ondoeta

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ITSASONDO



Txomiñone bota dute

Maiatzaren 10ean hasi ziren botatzen herriko historia txikian leku bat izan duen etxea. Lau izen behintzat bazituen: Txomiñone, Ferminene, Naparrene, eta Arana-enea. 1766 urtean ere ba omen zen. Orain bota dutena 1906 urte aldera egin omen zuten. Agotzeria, tabernadenda, postetxe izan da. Taberna gisa, 1945ean ireki zuten, aurrez ardoa bertan saltzen bazen ere. Taberna bezala itxi, berriz, 87ko Urte Zahar bezperan itxi zuten. Miraballesko tabernarekin batera, tertuli-leku izana herritar askorentzat. Orain beste etxe bat eraikiko da bertan. Gogoan izango ditugu, beste gauza batzuen artean, Ixabelen patata frejituak...

Boto-kutxak zai

Nor alkate? Erantzuna igandetik aurre-

ra. HB, EA eta Herrigintza, Karmele, Jone eta Aitor, asmo onenez. 1.417 herritarrek eman dezakegu botoa. San Martinen 894ek eta San Gregorio-Aian 523k. Orain 4 urte, HBk 492 boto, EAK 338, PNVk 172 eta EEk 169. Orduan orain baino 71 boto-emale gehiago izan zen. Aipatu baita, PNVk ofizialki Herrigintzarentzat eskatu duela botoa. Herriaren onerako dantza dezala makila, alkate berriak.

13 irakasle

Urte sasoi honetan betiko kezka izaten da. Ba, lasai. Datorren ikasturtean ere, aurtan bezala, 13 maixu-maistra izango dira Herriko Eskolan.

Pilota suspertzen

Martxa onean doaz San Gregorioko

frontoi berriaren lanak. Inaugurazioa bertako festetan egingo da. Horrekin batera, ordea, pilota suspertzeko lan handia egiten ari dira herritar batzuk. Ekainaren 2tik 10era argazki-erakusketa, mahai-inguru, pilota-partidu eta Ataungo pilotaren historia bildu nahi da San Martinen eta beste horrenbeste San Gregorion.

Jubilatun txangoa

Eztaukea geldiuire aundik! Gaagarri-llen zortzin eun pasa politte jarri due Atsedon-Lekuko burungarrik Naparroa. Estellan Peri eune da eta berta jungo die autobusen. Goizeko 9tan Samartiñen, ordu-laurden gero go Sangregorion ta beatziterditan Kaxetan. Gosarie eamatea komeni men da. Bazkarie an bertan. Bazkide zeatenok 2.400 pezta. Gañekok 3.200. Izenak illen bateako. Baakizue zeni eman. Ondo ibili.

Atakabiko koba

Kirol Elkarteak antolatuta Arastortzen dagoen Atakabi koban izan ziren joan den igandean herritar batzuk. Gusto askora gainera. Koba Aundie edo Atabiko Koba deitzen diote baita, Aizkorriondoko mailoa alde batetik bestera pasatzen duelako. Koba honetan egon omen zen izkutututa behin baino gehiagotan Bidarte Haundiko Migel Dorronsoro, Gipuzkoako Diputazioan diputatu izan zena eta karlista sutua.

Zorionak

Lizardiko Beatriz Barriolari. Eskolarteko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan akzesit bat lortu du bertso-paperean. "Gaur etxea garbitzen aritu gara" gaiari jarri zizkion bertsoak.

Txalburuak buru

Iaz bezalaxe, Abaltzisketako Ñañarri taldeak irabazi du futbol-areto txapelketa. Herriko Te Das Cuen taldeari irabazi zion. 5-5 amaitu zen partidua eta luzapenean 7-6 nagusitu kanpokoak. Beste baten beharko du. Orain kopa lehiaketa jakatuko da larunbatean hasita. 7 taldek hartuko dute parte.



**Ataun gure
ahalegina.**

**Herrigintza
Eman Botoa**

Esperientzia eta Etorkizuna

Jon Aizpurua

Urrezko barea CAF-entzat

Beti-Bizi Kultur Elkarteak orain dela lau urte Urrezko Barea izeneko saria sortu zuen, herriaren alde zerbait aipagarria egin duten pertsonak nola hala eskertzeko asmoz. Lehen Segundo Dorronsoro parroko ohiak jaso zuen; Karlos Argiñanok bigarrena; iazkoa Jose Martinezek eta aurtengoa berri, bikoitza izango da: alde batetik CAF enpresako langileentzat eta bestetik zuzendaritzarentzat. CAFen kasuan esan beharra dago, aspaldidanik Beasain herria altu mantendu duela, eta gure ekonomian bultzakada handi bat emateaz gain, gure herriaren izena trenen bidez mundu guztian zabaldu du. Enpresa hau zuzendaritza egoki baten ondorioz iritsi da dagoen lekura, baina zuzendaritza horrek langileen beharra izan du horretarako eta benetako lana egin dute enpresa aurrera ateratzeko. Hori dela eta erabaki da aurtengo saria bikoitza izatea.

Urrezko Barea 2. ostiralean banatuko da Beti-Bizik 'Beasain jaietan' aldi-zkarian parte hartzen duten lagunekin egiten den afarian.

Mariren jetsiera

Aurreko urteetan bezala Murumendiko sorgina Loinatz Jaiei hasiera ematera etorriko da. Hori dela eta, herritarrek dantza eta festarako prestatu behar dira. Ekitaldia edozeinentzat irekia da eta parte hartzeko egin behar den gauza bakarra, baserritar aitona edo amonaz (gizonezkoak amonaz eta emakumezkoak aitona) moztarotzea da, eta ondoren arratsaldeko 8etan Loinatz Tabernara joan. Lasai egon, entsaio txiki bat ere egingo da eta!

Alkartasuna Lizeoa

Auziperatuta dauden 4 ikasleentzat pri-



Euskadiko Kutxak antolatutako Gazteentzako III. Esketx-lehiaketan, Beasain-go Txindoki Institutuko I.D-ko ikasleek 4. saria irabazi dute. Saria, 500.000 pezetako bidai-txekea izan da. Zorionak!

batuaren aldeko direnen ordezkariak prentsaurrekoa eman zuten joan zen astean Donostian. Hezkuntza Sailari "serio erabakitzeke ordue" baduela jakinarazi zioten. "Administrazioak sartu gintuen aukeraketan eta parte zuzena hartu zuen gure gatazkan aurreko ekipoak, eta oraingo Hezkuntza Saila osatzen duenarentzat, bere lanagatik eta Herri honekiko aitortzen diogun konpromisuagatik, serio erabakitzeke ordue da", adierazi zuen Jon Artolak Ikastolako ordezkariak. "Aukerak garbiak dira, eta bakoitzari berea eman diezaiokeen bakarra, Hezkuntza Saila da. Zergatik dago ba erabakirik hartu gabe? Epailearen esku utzi nahi al du dena? Bi aukera egin dutenekiko errespetorik badauka, biezako irtenbidea gauzatu beharra dauka", gaineratu zuen.

Prozesu luze honetan, ELAren jarra salatu nahi izan zuten. "ELAren jarra erasokorrak tratua egiteko ezintasunera eraman du eta bere ezin-

tasuna justifikatzeko, informazioa okertzer, langilegoa distratua egon dadin, badakitelako, sindikatoaren ezintasuna dela medio, lana arriskuan ipintzen ari zaiola. Hori dela eta, egunotan, langilegoaren artean zabaldu du, etorri den eta datorren sententziarekin dena amaitzen dela. Juridikoki hori disparate haundi bat besterik ez da. Auziaren bukaera juridikoa 2000. urtean dator, Kontentziosoko Sententziarekin bukatu daitekeelako baka-rrik, eta ordurarte, publikazio prozesua etetearen erabakia eta agidua emana du Bilboko Entzutegi Gorenak".

Beraz, guzti honen aurrean, hartu beharreko neurriak azpimarratu zituzten. "Lehenengoa, argitzea, benetan, nahi den ala ez bi proiektuei bide ematea. Eta bigarrenkoa, erabakitzea, hitzez esaten dena zerbaiten gauzatzen dela ikusiz".

L.A.

KENTOR

Enmarkaketak Opari artikulak
Eskulanak Erakusketak

Zazpi Iturrieta, 1 behe
BEASAIN

☎ 88 53 61

Yañez

bitxitegia
erlojutegia

Nagusia, 11

☎ 88 04 99

BEASAIN



Kortaberriarrak aldapa arinduz

Santa Barbara eguna abenduaren 4ean bada ere, Asentzio eguneko hurrengo igandean (aurten maiatzaren 28an) ospatuko da 728 m. dituen Haitz-lehorko Santa Barbara ermittan. Aitaren aginduz santa lepamoztu ondoren tximista batek erdiz erdi harrapatuta hil omen zen aita. Hortik dator kio Santa Barbarari tximista eta turmoien babeslea eta mehatzari, hargin eta artileroen zaindaria izatea. Ume berantiztunen arazoa konpontzen omen zuela eta, fede berezia zitzaion. Bada oraindik herrian santaren hanketaraino astasaskian igoa izan zenik. Mendi erdialderarte uda partean ia egunero ematen zen meza. Zenbait herritarrek beren aurrekoei entzuna diete nola apaiza mando gainean eta monagiloa mandoari buztanetik helduta igotzen ziren. 1711n ermittaren berritze lanak bukatzea zezen korrida batez ospatu zela azaltzen da Udaletxeko artxiboan. Lope de Isastiren "Compendio Historial" ean ere, 1625ean, aipatzen da ermitta hau. Serora ere izan zuen baseliza honek. Axkuetako Joxe Intxaustik bere aitoniari entzuna zion, serora ezagutu izana gogoratzen zuela. Gaur oraindik ermittaren parez pare 200 metrora ikus daitezkeen etxe aztarnak omen ziren serora eta bere familiaren bizilekua. Uda bertan eta negu partea Segurako ospitalean pasatzen omen zuten.

Egun honetako errito nagusia meza aurretik ixipu modura bertako 31 pagoetako pagadar bat erabiliz, lau haizetara lurrak, abereak eta etxeak bedainkatzean direnekoa da. Ondoren, goizeko 9etan meza emango da urte barruan auzoan hildakoen alde. Garai batean bertara inguratzen zen pertsona zaharrenak omen zuen meza laguntzeko ohorea. Eguerdarako jendeak behera egiten badu ere, lehen erromeria eta guzti, egunpasa egiten zute.

Kortaberriarrak 8etarako goian

Fedeak fede, ohiturak ohitura, ospakizun honen euskarri nagusia Kortaberriko auzotarrak dira. Aldaparen nekealdia arintzeko hantxe egoten dira pronto goizeko 8etarako. Meza aurretik anixa, kafea, galletak edo paxintxiak ematen dizkiete gora igo berriei, eta mezaren ondorengo hamarretakorako, heltzen 26-GOIERRITARRA



1988ko azaroa. Mendotze baserriko haritz arbola labratu, makinaz tarraka igo, haga usteldua kendu eta berria jarri zioteneko.

diren guztientzat, aurrez piztuta duten sutan salda eta txistorra izaten dituzte, ogia, ardoa edo freskagarriekin. "Auspoo ondo berotuta ailegatzek dira bat baino gehiago. Beasaingo festetatik zuzenean igotako bakarren bat edo beste ere bai egarri galantarekin".

Prestaketa bi aste lehenago hasten dute: ermittako kortina eta trapuak jaso garbitzeko, barrua eta inguruak txukundu eta traktorea pasatzeko bidea moldatu. Izan ere, garai batean astasaskietan eta mandoz igotzen bazituzten egun horretarako jan-edanak eta gainerakoak, azken urteotan traktorez igotzen dituzte Kortaberri aldetik. Joxe Xamixentek edo Patxi Naparrak tabernatik edariak eramateari utzi eta urte gutxira kortaberriarrak hasi ziren ohitura honekin, orain 20ren bat urte. Gainera, Udaletxea laguntza ematen hasi zen arte kortaberriarrak beren poltsikotik ordaindu izan zuten dena, orain egiten den zor txikia-gori hori ere bai.

Berrikuntzak

Guzti honetaz gain, ermittak edo inguruak arazoren bat badu, han izango dira Kortaberri edo Laiotz barriokoak. Hauen ardura izan baita giltza gordetzea bertan jasotako diruak administratzea eta mantenimenduaz kargu egitea. Momentu honetan egin behar hori Kortaberriko Xalbador Agirre ta Omiñoko Joseba Alustizaren esku dago. Hauen ardura izan baita giltza gordetzea, bertan jasotako diruak administratzea eta mantenduaz kargu egitea. Momentu honetan egin behar hori kortaberriko

Xalbador Agirre eta Omiñoko Joseba Alustizaren esku dago. "Oaiñee tellatue berritu beharren tzeok", diote. Azkenaldiko berrikuntzarik handiena 1958an eman zioten, inguruak harriak bilduz eta materiala eta porlan zakuak asto edo mandoen gainean igoz. Bidean porlanaz kargatuta zeramaten Kortaiako astarrarekin egin zituzten komeriak beste baterako utziko ditugu. Gerroztik, atari pareko teilatua erre zela eta, 1973an berritu zuten. Leandro Elorzak ere orduan egin zituen beheko sua eta tximinia. Ordukoa da Kortaberriko koa-drilak Felix Lardizabalen soldaduskako despedida egunean, parrandatik etorrita zuzenean 4 asto erramintaz eta materialaz kargatu eta goizeko 4rak aldera 73ko urtaril hotzeko ilargitan Santa Barbara aldera abiatu zirenekoa, arratsaldeko 4rak alderarte lanean aritu eta teilatua berritu ere bai. Hura bai gaupasa! Azken egindako obra 1988koa da, haga nagusia usteldua zegoela eta, berria jarri zioteneko. Argazkian ikus daitekeen bezala ermittari eusteko modukoa.

Odol emailak

Apirilaren 30ean Zegaman egin zen Gipuzkoako Odol Emaila Elkartearen XXX. batzar nagusian, beste zenbaiten artean, M. Jose Sarriegi, Jabier Telleria, Ramon M. Telleria, Eustakio Telleria eta Santiago Ariztimuño segurarrek Elkartearen insignia eta diploma jaso zuten, 25 emanaldi egin izanagatik.

 Joseba Telleria

Bi alkategaien asmoak

Jose Inazio Elizegi (HB)

"Txili" da HBko zerrandaburua maiztaren 28an egingo diren udal hauteskundeetarako. Orain dela 37 urte jaio zen Aztiriaga etxean. Bartzelonan psikologia ikasi eta momentu honetan Idiazabalgo idazkaria da. Alaba baten aita dugu. "Oso gai garrantzitsuak ikusten ditugu pendiente: 1) Arau Subsidiarioak aurrera ateratzea, lehengo legealdian abantzea baizik ez baita aprobatu. 2) Kalearen urbanizazioa,

plazatik gora. 3) Aralarko parkearen antolamendua. 4) Barianteari gaiari heldu beharrean gaude. 5) Uraren arazoak ez daukagu ahazterik. Uren Kontsortzioan sartzeko ZUTek ez du ezertxo ere egin."

Miguel Maria Irastorza (ZUT)

Oraingo alkatea, da "Zaldibia Udal Taldea" (ZUT)etik listaburu doana. 42 urteko zaldibitar hau HINE enpresako langilea da eta bi seme-alaben aita.

"Begibistan daude guk egindako hainbat lan: plaza berria, Iztuetaren monumentua, etxebizitza sozialak, parke botanikoa, Karreranea erosi, hainbat erakusketa eta kultura-ekin-tza, zerbitzu sozial aldetik egin duguna... Baina oraindik asko daukagu egiteko, nahiz eta gauza asko aurreraturik eduki. Hain zuzen ere, egin dugun lanak jarraipena izan dezan presentatzen naiz berrira".

 **Rufino Iraola**

EZKIO-ITSASO

Bi zerrenda Hauteskundeetarako

Datorren 28ko Udal Hauteskundeetarako Ezkio-Itsasok aurrekoan izandako bi zerrendak ditu oraingoan ere aukeran: Ezkio-Itsasoko Herrikideak eta Herri Batasuna. Batetik zein bestetik hautagaiak hauek dira:

EIH: M. Isabel Olanga, Alegiako Atxosaingoa; Jose Inazio Etxezarreta, Sta. Lutziko Bizinaitegi-koa; Jose M. Zumarraga, Sta. Lutziko Sagastizabal-berrikoa; Prudentzio Mujika, Itsasoko Albitsu Behekoa; M. Pilar Garmendia, Mediku Etxekoa; Ana Belen Aranburu, Alegiako Ostaturkoa; Balentin Unzurrunzaga, Ezkioko Argindegikoa; Migel Anjel Idiakez, Ezkioko Nahiakoa; Pilare Mujika, Itsasoko Urteagakoa eta Esteban Mendia, Itsasoko Atin Goenekoa.

HB: Ximon Idiakez, Ezkioko Goetxekoa; Marisabel Arakistain,



Sta. Lutziko Errotakoa; Maite Salutregi, Itsasoko Erraztikoa; Manuel Garmendia, Sta. Lutzikoa; Iñaki Larrañaga, Itsasoko Ostaturkoa; Jose Ramon Iturralde, Sta. Lutziko Olatzabarrengoa; Inixio Galdos, Igartzakoa; Iñaki Idiakez, Ezkioko Goetxekoa; Iñaki Etxeberria, Ezkioko Beitikoa eta Joseba Azpiazu, Sta. Lutziko Anduaga Berrikoa.

Hauteskundeok direla eta, "Eup!", Ezkio-Itsasoko herri al-dizkariak argitaratuko duen gehigarri berezian, bi hautagai buruei egindako elkarrizketa luze-zabal batean, talde bakoitzak bere egitekoa zein ardatz nagusiren inguruan oinarrituko duen, esparru eta arlo bakoitzari buruz zein asmo duen, e.a. aurkituko duzue.

 **Pilare Mujika**

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



Gero jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Modulo hau

3.000 pzta.

kostako zaizu

10 aldiz eginez gero

2.500 pzta.

Ekainaren 4an Arantzazura peregrinazioa

Ohitura zaharrari jarraituz, aurten ere iritsi zaigu Arantzazu aldera joateko eguna. Aurten ekainaren 4an izango da egun arrakastatsu hori. Goizeko 8etan autobus bat izango da goiztiarrentzat eta beste bi autobus 10.30etan gainerakoentzat.

Bazkaria Ama Birjinaren iturrian izango da urtero bezala Udalaren kontura. Esan, 1981a ezkerro, salda beroa eta oilakia tomatearekin ere izaten dugula barruak berotzeko. Garai hartan, Fermin Larrea, Juan Sarraoa, Eugenio Ormazabal, Jabier Otaegi eta Patxi Idigoras izan ziren salda prestatzen hasi zirenak. Sua egiteko egurra ere egun berean bota eta biltzen zuten. Urtetik urtera prestaketa hobetzen ari da, gauza eta ideia berriak sartuz.

Astelehenean, ekainak 5, Goiko Bentan elkartuko gara fraile eta herri-tarrak, eta Zegamako txistulariek la-



1981ean hasi ziren zenbait herritar Ama Birjinaren iturrian salda prestatzen.

gundurik Santutegira prozesioan joango gara elizako ikurriñak eramanez. Bazkalondoan, mendiz datozenek, Oazurtzen merienda izango dute. Arratsaldeko 7.30ak inguruan, ongi etorria emanaz, herriko haurrentzat goxoki banaketa izango da Anduetzan, eta Kasino Ipui Lehiaketaren sari banaketa. Ondoren Elizarako bidean, Martin Deunaren Elizan dagoen Ama Birjina

ateratzen da, menditik datozenek ongi etorria eman eta ikurriñei muin emateko, ondoren Elizan otoitzaldia eginez. Jarraian, ardo banaketa izango da Udaletxearen arkupeetan eta afaldondoan, musika goizalderarte.

Oharra: jendeak bezperan kotxea eramaten duela ikusirik igandean etorri ahal izateko, igandean bertan autobus bat izango da Arantzazutik etortzeko. Izenematea Udaletxean egingo beharko da, ekainaren 2a baino lehenago. Gutxienez 30 lagun izatea da baldintza.

Odol Emaileen Elkartea

Odol Emaileen Elkarteak, apirilaren 30ean, Gipuzkoako Batzar Orokorraren burutzapenean parte hartu zuten pertsona eta laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi die idatzi honen bidez.

Eduarne Albizu

ZERAIN

Herriko gazteak Gaztetxea eskatuz

Duela hiruzpalau hilabete sortu zen Gazte Asanblada. Dozenaren bat kide dira. "Baina jende kopurua ez da kwestioa ezta?". Lokalik ez dute oraindik, eta Mandioan biltzen dira ostirale-tan. Gaztetxea eskatu dute jada, "gazteok dugun eskubidea denez, Zerainek herri bezala gaztetxe bat behar du. Udaletxean eskatu dugu Gaztetxea. Bilera batzuk egin ditugu eta lehenengo talde bezala funtzionatzen hasteko, gure jarrera zein den ikusiko dutela, eta gero hitz egingo dugula esan digute. Baina uste dugu oraindik ere eskatzen eta gure ekintzak egiten jarraitu behar dugula. Denborarekin ahaztuko garelakoan bait daude. Lokalarena ez da arazoa, nahiz eta Udalak ez dagoela esan", azaldu digute zeraindarrekin. Hauez gain, hainbat ekintza egiteko prest daude



gazteok. Hortxe darabilzkiten buruan, hitzaldiak, bideo emanaldiak, mus txapelketa, mendi irteerak...

Dena den, herri txiki-txiki-txiki gazteek beste arazo batzuk ere izaten dituzte. "Herriko gazteak ez gara biltzen, beti kanpora joaten gara, lo eta jateko etortzen gara Zeraina, kanpoko kuadrilak ditugu, ez daukagu herri mai-

lako girorik, ez dago gazteok elkartzeko 'aitzakiarik'. Baina orain gazte asanbladarekin sortu da gazteen arteko giroa. Zeraingo gazteak elkar ezagutzeko balio izan du Gazte Asanbladak", azpimarratu digute.

Zerain Proiektua dela eta, herriari bizia eman zaio. Proiektu honek gazteak kontuan hartzen dituen galdetxean zera erantzun digute: 2baitz esaten dute, baina ez dakit. Gure eskaera azaldu zenean beldur bat bezala azaldu zen, Gaztetxe hitzari dioten beldurra. Ez dakit gazteen proiektuak zenbateraino hartzen dituzten kontuan. Zerain Proiektuaren hutsune bat hori da, kanpokoentzako bideak ari direla egiten eta herrirako ez dago ezer, batez ere gazteontzat".

L.A.

SEGURAKO ERREMONTELARIA GALARRETAKO TXAPELKETAN IRABAZLE

Joseba Auzmendi: "Tartea gero eta txikiagoa da"

"Gogoratzen naiz osaba Ramonek ekarrita edo, nola etxeko ganbaran betidanik erremonteko bi xesto egon izan ziren. Erraminta horiek txiki-txikitatik erakarri ninduten". Honela, egun batean xestoari hautsa kendu, etxeko pelotarik biziena hartu eta eliza ondoko frontoian hasi zen erremontelari bezala lehen pausoak ematen. Bere aitak Mujika eta Zestauren arteko partidua ikustera eraman zuen egunaz ere oso oroitzapen berezia du. Hura izan zen Galarretan sartu zeneko lehenengo aldia.

Pelota munduari lotua

Pelota tradizio handiko etxean jaioa, bere aita Joxe Mari Auzmendi esku pelotari bikaina izan zen. Joseba bera ere, orain baino kotxe gutxiago zela, makina bat aldiz aritu zen pelotan Kale Nagusian, Joxe Urrustiren etxearen kontra. Bere etxe ondoko frontoian, txanbolinpean eta portikopean zeresanik ez. Herriartekoan ere, infantiletan eta jubenetan jokaturakoa da.

15 urterekin hasi zen Galarretako erremonte eskolan, hasieran larunbatero, eta gero asteen bizpahiru aldiz joanez, duela 6 urte profesionaletan



Joseba Auzmendi segurarrak 27 urte ditu, 1,81 metro eta 80 kilo. Berak dioen bezala, "jendeak bazekien erremintaren batekin ibiltzen nintzela, baina txapela lortu ondoren garbi du erremontelaria naizela". Arg: Edurne Koch.

debuta egin zuen arte. "Bidea gogorra da, erremontea progresio motela duen kirola da, oso piskanaka ikasten baita. 3. mailakoekin hasi eta 2. mailako onenekin jokatzera heldu nintzen. Ga-

larretako torneoan 1. go eta 2. mailakoak nahasirik jarri gintuzten, eta azkenean Ezkurra eta biok irabazi egin dugu. Ezkurak 21 urte ditu, baina denbora gutxi barru koadroko hobereena izatera iritsiko da". Txapel honek garrantzi handia du Josebarentzat, "nere buruari primerakoekin ibil naitekeela demostratu diot, tartea gero eta txikiagoa dela. Gogo handiagoz segikodut akatsak zuzenduz eta pelotari bezala hobetuz".

Pelotaz gain, 4 urte daramatza CAFen lanean. Lanean 8 orduz aritzea orokorrean hoberako izan dela dio, "nahiz eta nekatuago ibili, buruak beste lasaitasun bat du eta presio gutxiagoz jokatzen dut pelotan".

Erremontearen egoera

Erremontea ez du izan esku pelotak izan duen gorakadarik. "Pelotak hartzen duen abiadura dela eta, zailagoa da telebistaz ondo apreziatzea kirol hau. Bi frontoi bakarrik izateak ere bere mugak ditu. Baina Galarreta, erremontea hasi zenetik gorantz doa, eta Euskalek beherakadatxoa izan zuen arren, orain maila onean dabil. Ikusleak orokorrean gizonetakoak eta helduak dira, baina oso zaletu leiala dugu. Goierri aldetik ere jende dexente inguratzen da. Behin ikusita ez, baina 6ren bat aldiz ikusita engantxatzen duenetakoa da. Hala ere, garbi dago zein joaten den ikuskizunaz goatzera eta zein dirua jokatzera". Sarearen eragina ere aipatu digu. "Badirudi sareak seguritate fisikoaz gain beste seguritate mota bat ere ematen diola zenbaiti". Pelotarien jokoari dagokionez, jokalarien batzuetako maila garai batetik hona izugarri igo dela dio, eta horren adibide garbia ere jarri digu, "lehen pelota errebotera bota ezkeror tanto seguroa izaten zen, orain berriz errebotetik egin diezazukete tantoa".

Aurrerapen nabarmeneko pelotaria

Erremontean aritutakoak ez dira asko Seguran. Afizionatu mailan ibilia da Gurutz Goikoetxea, eta profesionaletan hor dabilta Iñaxio Imaz eta Ezkurarekin batera Galarretako txapelketa irabazi berri duen Joseba Auzmendi. Gogoratzen naiz mutiko honek txikitan eskuz oso poliki jokatzen zuela, baina eskuetatik dexente sufritzen zuen. Artean mutikoa zela, Galarretako erremonte eskolan kondizio onak ikusi zizkieten, saiatu ere hala saiatu zen, eta orain 6ren bat urte debutatu zuen. Progresio izugarria izan du. 3. mailan jokatzetik 2. mailako partidua onenak jokatzera heldu zen, eta orain txapelketa hau irabazteak inportantzi ikaragarria du. Momentu honetan koadroan dagoen sakatzailerik onenetakoa da. Teknika eta bista handikoa. Finalean erakutsi zuen bezala, plaza gizona eta aurrelariari egundoko garantia ematen diona. Kualidade handiak baditu ere, azken golpe horixe landu beharra dauka zertxobait, posible baita hobetzea. Honela, hoberenekin aritzeko moduan legoke.



Patxi Etxeberria

Joseba Telleria

Kaki eta Negu Gorriak ideia zabaltzen

Kaki Arkarazo, denok jakingo duzuen moduan Negu Gorriak taldeko gitarrajole lazkaotarra dugu. Euskal Herriko talde erreferentzialeneko partaide alegia. Beraien diska berria "Ideia zabaldu" aitzakia modura harturik, GOIEIRITARRAN duela 5 urte esanak gogoratu eta musikaren inguruan egin duen bidea errepasatuz hasi genuen elkarrizketa.

E.- Oso luzea da, orain dela 15 urte ikasketak utzi eta musikari erabat eskaintzea erabaki nuen, haseran talde batzuetan ibili, gero telebista eta irrati-gauza batzuk egin eta ondoren M-ak taldea sortu genuen, 1990 arte, urte honetan Kortatu taldearekin zenbait gauza egin, kontzertu batzu barne. Urte berean Fermin, Iñigo eta nik Negu Gorriak (N. G.) sortu genuen eta hor nago gaur arte.

G.- Zer egiten duzu N. G.-en jotzeaz gain?

E.- N. G.-ena oso gauza planifikatua izan ohi da, urtero planifikatzen dugu dena, zeren beste bi talde daude tartean: BAP eta Anestesia. Denbora oso zehaztua dugu, horrez gain nik ekoizle bezala lan egiten dut, orain nire kasara baina lehen IZren estudioetan.

G.- Goieriko berririk ba al duzu?

E.- Buff! Musika munduan bat ere ez, hemengoak (Donostialdea) justu-justu. Lagunekin aspaldi galdu nuen harremana, handia bait da jada iragan den denbora aldegin nuenetik, familiarekin batipat. Egunen batean itzuliko naiz hara, baina ez dakit...

G.- Urteekin lasaitasuna etorri beharrean, garai lanpetuenak etorri zaizkizu musikari dagokionean.

E.- Bai egia da. Baina ez dut urteetan pentsatzen, musika inguruan oso lanpetuta nabil, orain adibidez N. G.-ena egin dugu, Anton Reixarekin ere lan bat prestatzen ari naiz, baita Xabi Montoiari laguntzen ere. Gainera esan gauza berriak egiten jarraitzeko asmoa dudala, beti ari naiz etorkizuna gauza



Negu Gorriak intsumisioaren alde "ideia zabaldu"az

berriak egiteko ikuspuntutik begiratzen.

G.- Zer nahiago duzu, kitarra jotzea ala diska bat ekoiztea?

E.- Errazagoa kitarra jotzea da. Kitarraz zerbait jotzea eta zerbait berria egitea ez zait batere kostatzen, diska bat ekoiztean ordea, faktore gehiago sartzen dira, askoz ere konplikatuagoa da. Baina, bat edo bestea aukeratzea ezinezkoa egiten zait.

G.- Zuen lan berria zertan nabar-meduko zenuke beste disketatik?

E.- Lan honetan oso gustora gaude, ez da hain luzea ezta hain konplikatua ere. Ekoizpena ere oso sinplea eta zuzena izan da. Orokorrean sinpleagoa dela uste dut.

G.- 6 urteren buruan honelako diska fresko bat ateratzearen sekretua zertan da?

E.- Bai, kantuak oso zuzenak eta sinpleak zirela uste genuen eta diska honi ekoizpen aldetik zerbait berezia eskeini behar geniola pentsatu nuen. Horretarako, gure soinu garbia erabili genuen inolako aldaketarik gabe, soinu bero eta zuzen bat lortu dugu modu hnetara. Askok gustatu zait diska honetan lortu dugun soinua.

G.- Zein abesti aukeratuko zenituzke diskatik?

E.- Neri asko gustatzen zaizkit Salam Agur eta Aizu.

G.- N. G.-en inguruan gertatzen denaz zer duzu gustoko?

E.- Gauza asko, kontzertuetan sortzen den giroa asko gustatzen zait, birak ere bai, baina egun asko etxetik kanpo eramatean itzultzeko gogo handia izan ohi da. Oraingoan ere diskaren grabaketa oso atsegina izan da, aurreko lanean gertatu ez zena bere luzeragatik. Azpimarratu ditudan gauza hauek gure arteko harreman onagatik dira, oso ondo pasatzen dugu elkarrekin, furgonetako giroa adibidez, sekulakoa da.

G.- Noizko kontzertu bat Goierriin?

E.- Jo, egin beharko dugu, oraingoz ez, zeren eta dena prestatuta dugu, baina proposamen gogor bat egiten badigute, egin beharko dugu kontzerturen bat. Noizbait egingo dugu.

Beti, Euskal Herriko musika inguruan, puntan ibili den Kakik kontatu zigunaren sintesi bat da hau, baina bada besterik, N. G.-en "Ideia zabaldu" diska berria. Leku asko beharko litza-teke diska hau goraiatzeko. Zer esan... urteko euskal diskarik onena? Ziurraski bai, proba ezazue.



Astigarreta eta Garingo Luistarrak

Duela 65 bat urteko argazkia dugu honakoa, Jose Inazio Lasa garindarrak, bere izebari esker eskuratua. Astigarretako Plazan ateratako argazkia da. Bandera berria ekarri zutenean ateratakoa.

Azaltzen diren Luistar gehienak hilda badaude ere, badira oraindik ere bizi direnak: Joxe Mari Lizarralde, Migel Martin Aranburu, Anizeto Odriozoloa, Eduardo Esnaola eta Tomas Telleria.

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.

KOIOTE

TABERNA

Zaldizurreta
BEASAIN
Etxezareta k.
ORDIZIA

Levi's

Zure
bakero
denda



☎ 88 94 09
S. Inazio, 1

BEASAIN



Bai Bai

Pub

Jai hauetako
alternatiba!
Zaldizurreta, 3
BEASAIN

GOIERRI

Auto recambios

Autoen
zerbitzu
orokorrak

Nafarroa Etorb., 29
☎ 88 45 50 - 54
Faxa: 88 88 09
BEASAIN

AUTO ASEGURUA

- Segurutik zuregandik hurbilago gaude, zu hobeto zerbitzatzeko
- Segurutik noranahi joanda ere, Laguntzarako Telefonoa izango duzu
- Segurutik Bidaietarako Laguntzan Estaldurarik Hoberenak izango dituzu
- Segurutik Peritazioa Azkar baino azkarragoa izango da
- Segurutik zure Hobariak kontuan hartuko ditugu
- Segurutik gure prezioen truke ez duzu estaldura hoberik aurkituko



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa Taldekoa

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08